



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

Jardueren Oroitidazkia

Lehiaren Euskal
Agintaritza
2018

competencia.euskadi.eus



© Lehiaren Euskal Agintaritza/Autoridad Vasca de la Competencia (LEA/AVC)

Editorea: Lehiaren Euskal Agintaritza/Autoridad Vasca de la Competencia (LEA/AVC)

Gordailu legala: BI-980-2019

Edukia

I. Aurkezpena	5
II. 2018-2022 Plan Estrategikoa ezartzea	6
III. Lehia sustatzea	10
1. Jarduketa gero eta sendoagoa	11
2. Txostenak	12
3. Aurkaratzea	21
4. Kotsultak	22
5. Gaurkotasun-gaiei buruzko gidak eta txostenak	23
6. Lehia ikastetxeetan	24
IV. Lehia defendatzea	26
1. Jarduera finkatua	27
2. Ebazpenak	28
3. Espedienteak esleitzea	33
4. Ikuskaritzak	33
5. Zaintza	33
V. Institutio-jarduna sendotzea	34
1. Lehia-sarea	35
2. Jarduera instituzionala	36
VI. Talde bat kudeatzea	44
1. Pertsonak	45
2. Diru-baliabideak	46
3. Baliabide materialak	46
4. Konpromisoa genero-berdintasunarekin	46
VII. Laburtzapenak	47



2018ko ekitaldia urte garrantzitsua izan da, Lehiaren Euskal Agintaritzza (LEA/AVC) bere lehen Plan Estrategikoa (2018-2020) ezartzen hasi delako, erakundea kontsolidatzeko xedearekin.

LEA/AVC osatzen duen taldeak 100 espedientetan egin du lan, eta bere defentsa-, lehiaren sustapen- eta aurkaratze-zereginak egin ditu. Horrek guztiak organismoaren jarduera % 10 haztea eragin du aurreko ekitaldiarekin alderatuta, baina jarduera zehatzailea mantendu egin da: Lehiaren Euskal Agintaritzak 9 ebazpen eman zituen 2018 urtean zehar, bereziki elkargo profesionalen eta kontratazio publikoen arloan.

Gainera, LEA/AVC-k bultzada garrantzitsua eman dio 2018an Advocacy arloko jarduerari: guztira 63 sustapen-espediente kudeatu ditu legeko mandatuia betez eta sustatuz, Euskadiko aholku-organoa den aldetik. Bereziki aipatu behar da lehiaren sustapenaren arloan gaurkotasun-gaiei buruz egindako zenbait argitalpen, besteak beste, Kontratazio Publikoaren eta Lehiaren gida, Alokairu

Turistikoko Etxebizitzaren Erregulazioaren Praktika Hobeei eta Analisi Konparatiboari buruzko azterlana eta Datuen erabilera masiboak lehia-prozesuan duen eragina.

Horri esker, LEA/AVC-k ehuneko altu batean bete ahal izan ditu helburuak eta lerro estrategikoak, hala erakundearen jardueran nola barne-mailan, erakunde autonomoaren prozesuak eta kudeaketa hobetuta.

Horrenbestez, agintaldi honetan LEA/AVC-k ildo berean jarraituko du lanean, Euskadin lehia- eta gardentasun-baldintzak sustatzeko, bermatzeko eta hobetzeko xedea duenez.

Alba Urresola Clavero

Lehendakaria

II. 2018-2022 Plan Estrategikoa ezartzea



II. 2018-2022 Plan Estrategikoa ezartzea



Lehiaren Euskal Agintzaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

2017ko abenduan, 2018-2022 Plan Estrategikoa onartu zen, LEA/AVCren lehen plan estrategikoa¹.

Gogoeta eta planifikazioko barne-prozesu luze baten ondoren, bi xederekin egin zen plana: alde batetik, agintaritzaren etorkizuneko oinarriak finkatzea eta, bestetik, kudeaketa- tresna estrategiko bat ezartzea, epe ertainera lehentasunezko helburuak eta jarduketa-lerroak definituko dituen, eta LEA/AVCren jardueraren segimendua, ebaluazioa, egokitzapena eta zabalkundea ahalbidetuko dituen.

Plan horren arabera, LEAren izaera hauze izan behar da: «erakunde errespetatua eta erabilgarritasun, zorroztasun, proaktibitate, gardentasun eta independentziagatik ezaguna, Euskadiko Autonomia Elkargoan (EAE) lehia defendatu eta sustatzen duelako, merkatua ireki eta lehiakorragoa izan dadin».

Ikuspegi horri jarraikiz, lau Helburu Estrategiko (HE) ezarri dira, 10 lerro estrategiko eta 38 lehentasunezko jarduketaren bitartez lortzeko direnak.

JARDUTEKO ESTRATEGIA ILDOAK

Estrategia Helburua (EH)	Jarduteko Estrategia Ildoak (EI)
1 EH. Erakundea sendotu eta ikustaraztea	1.1 El. Erakundearen ikusgarritasuna eta sinesgarritasuna 1.2 El. Lotutako lehiaren agintekin eta erakundeekin kolaboratzea
2 EH. Lehia aldezte merkatuetan	2.1 El. Merkatuen zaintza proaktiboa 2.2 El. Zehapen prozedura benetan aplikatzea
3 EH. Lehiaren sustapena bultzatzea	3.1 El. Merkatuaren ezagutza sakontzea 3.2 El. Lehiaren kultura sustatzea 3.3 El. Zaintza eta sustapena arau eremuan 3.4 El. Aholkularitza organo gisa jardutea
4 EH. Operazio bikaintasuna lortzea	4.1 El. Teknikari taldea profesionalizatzea eta espezializatzea. 4.2 El. Kudeaketa aurreratu eta berrritzailea

¹ Honako helbide honetan kontsulta daiteke: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/memoria_actividades/es_memoact/adjuntos/PLAN_ES-TRATEGICO_2018_2022_es.pdf

ESTRATEGIA PLANA 2018-2022

1. ERAKUNDEA SENDOTU ETA IKUSTARAZTEA

Erakundea sendotu eta hazi behar da, EAEko jendartearen eta erakunde sisteman erakundearen sinesgarritasuna eta erabilgarritasuna handituz. EAEko jendartearekiko komunikazio bideak eta lehiaren bestelako erakundeekiko eta lotutako erakundeekiko.

4. OPERAZIO BIKAIN TASUNA LORTZEA

LEAk kudeaketa eredu aurreratua era berritzailea garatu nahi du, eguneroko jardura hobetzeko. LEAk profesionalen taldean ezagutza eta espezializazioan eta talde lanean oinarritutako antolakuntza ereduaren alde egiten du.



2. LEHIA ALDEZTEA MERKATUETAN

LEAk funtzioak bete nahi ditu EAEko merkatuetan lehia murrizten duten jardueretatik babesteko, independentzia, zuhurtasun eta zorroztasun printzipioetatik. Eta merkatu eta jardura horiek gero eta konplexua-goak direnez, egokia da zaintza proaktiboa indartzea.

3. LEHIAREN SUSTAPENA ("ADVOCACY") BULTZATZEA

Tresna ez zehatza ileen eta eragile preskrip-toreekiko lankidetzaren bidez, uste baitu lehiaren kultura ez dagoela behar beste zabaldua gure jendartearen eta merkatuetan. Merkatuak hobetu ezagutu behar dira.

JARDUKETA NABARMENAK

2018an, Plan Estrategikoa ezartzen hasi da; hala, egin diren jarduketa guztiak aldeztu aurretik planifikatutakoa betetzera bideratu dira.

Jarraian laburtu dira zeintzuk diren 2018ko ezarpenaren mugarri eta erdiespen nagusiak.

- ✓ Abiarazi egin dira Plan Estrategikoan aurreikusitako 38 jarduketen % 90.
- ✓ Aurrerapen nabarmenak egin dira lau he etan, bereziki erakundearen kontsolidazioari eta lehiaren sustapen aktiboari dagokienez.
- ✓ 100 espedientetan egin da lan; aurreko urtean baino % 10 gehiago.

1EH. Erakundea sendotu eta ikusaraztea

Presentzia **6 kongresu** espezializatutan, estatu-mailakoak zein nazioartekoak

Lankidetzak **komunikabideekin**

Lankidetzak **lehia-agintaritzekin eta lotutako erakundeekin**

2EH. Lehia aldeztzea merkatuetan

Ustez **lehiaren kontrakoak diren 37 portaera** aztertzea

- ✓ **10 merkatu aztertu dira** merkatuen zaintza proaktiboaren barruan
- ✓ **Sei erreminta edo tresna aplikatu** (artxiboa, zehapenak, ikuskapenak, absoluzio-ebazpena, zaintza eta informazio-eskariak)
- ✓ **Neurri berriak** gure jarduketan bermea, aurreikusgarritasuna eta segurtasun juridikoa areagotzeko

3EH. Lehiaren sustapena bultzatzea

63 espediente: nabarmentzekoak dira kontratazio publikoari, araei, elkargoei eta zerbitzuei buruzkoak

- ✓ **Bi lehentasun-sektoreri** buruzko azterlanak
- ✓ Kontratazio publikoari eta lehiari buruzko **gida**
- ✓ **34 ekintza** lehiaren kultura sustatzeko
- ✓ **8 txosten** prebentziorako eta arauak egokitzeke
- ✓ Aholkularitza **28 erakunderi**

4EH. Operazio bikaintasuna lortzea

Ezagutzaren kudeaketa: barnekolan-prozeduretarako sistematika

Espedienteak kudeatzeko tresna berria

Barne-prozesuak definitu eta hobetzea

III. Lehia sustatzea




1. Jarduketa gero eta sendoagoa


LEA/AVC-k 63 jarduketa egin ditu –2017an baino 15 gehiago– lehiaren sustapenean edo Advocacy arloan. Besteak beste, hauek nabarmentzen dira arloka: kontratazio publikoa, administrazio-erregulazioa eta elkargo eta zerbitzu profesionalak.

Era berean, aipamen berezia merezi dute gaurkotasun- gaiei buruzko analisi sakonek. Hiru gidatan gauzatu dira analisiok: erabilera turistikoko etxebizitzetxei buruzko gida, kontratazio publikoari buruzko lege berriak lehia izango duen eraginari buruzko gida eta datuen erabilera masiboak lehia-prozesuan duen eraginari buruzkoa.

Sustapena: jarduketaren kopurua



Sustapena: Jarduketak eta sektoreak



2. Txostenak

A. Arauei buruzko txostenak

a. Administrazio-erregulazioa

Donostiako Udalaren ordenantza arautzailea, etxebizitzaren erabilera turistikoari eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzeari buruzkoa

Etxebizitzaren erabilera turistikoari eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzeari buruzko ordenantza arautzaileari hasierako onespina eman zion Donostiako udalbatzak, eta LEA/AVC-k ordenantza horri buruzko txosten bat eman zuen 2018ko otsailaren 6an.

Txosten horretan, Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK) adierazi zuen duen ordenantzak zeinak Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) garatzen baitzuen, halaber, erabilera turistikoko etxebizitzak (ETE) edo etxebizitza partikularretako logelak erabilera turistikorako ustiatzeko jarduera ekonomiko merkatuan sartzeko oztopoak ezartzen zizkiela, Turismoaren Euskal Legeak baimendutako jarduera izanik.

Hala ere, oztopo posibleak ere indarreko HAPOan zeuden jasota, eta, zentzu horretan, ordenantzak modu nabarmenean leuntzen zituen sartzeko oztopo horiek B eta C zonetan, HAPOk baimentzen zituenak baino etxebizitza turistiko gehiago baimentzen baitzituen. A zonari dagokionez, ordea, erabateko debekua ezartzen duenez, ordenantzak modu adierazgarrian gogortzen ditu HAPOk ezarritako sartzeko oztopoak.

LEKek azpimarratu zuen askoz ere proportzionalagoa zela ETEn garapen askea baimentzea haien ezarpena debekatzea baino, betiere jarduera hori jabetza horizontalaren eratze-tituluan edo jabeen erkidegoen estatutuetan debekatuta ez badago; izan ere, erkidego horiek dira beren jabetzako eraikinetan jarduera ekonomiko horiek mugatu edo debekatzeko entitaterik egokienak, baldin eta jarduera ekonomiko horiek eragozpenak eragiten badituzte edo auzokideen arteko bizikidetzak asaldatzen badute.

Aurrekoari kalterik egin gabe, LEKek aitortu zuen indarreko HAPO ezartzen dituela sartzeko oztopo posible horiek, A zonan etxebizitzaren erabilera turistikoa ezartzeko debekuaren kasuan izan ezik – Ordenantzan ezarrita dago debeku hori-. Horregatik, LEKek kontsideratu zuen bai Ordenantzak bai indarreko HAPOak posizio pribilegiatua ematen dietela eragindako operadoreei.

LEKek azterlan juridiko-ekonomiko bat egitea erabaki zuen Euskadiko hiru hiriburuetan sektoreak duen egoera aztertzeko, kasua hala bada, indarrean dagoen HAPO eta berori garatzen duen araudia aldatu eta Zerbitzuen Zuzentzarauko eta haren transposizioa² egiteko Legearen aginduetara egokitze xedearekin, horrela etxebizitza turistikoak edo etxebizitza partikularretako erabilera turistikorako gelak ustiatzeko jarduera ekonomikora sartzeko beharrezkoa edo proportzionala ez den oztopo oro ezabatzeke.

Erabilera turistikoko etxebizitzaren eta etxebizitza partikularretako gelen dekretu-proiektua

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak txosten bat eskatu zuen, erabilera turistikoko etxebizitzaren eta etxebizitza partikularretako logelen dekretu-proiektuari buruzkoa.

Aipatutako dekretu horretako zenbait alderdi azpimarratu zituen LEKek 2018ko martxoaren 14ko aldeko txostenean. Hala, erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko betekizunari dagokionez, adierazi zuen Dekretuan horren inguruan egindako preskripzioak beharrezkoak eta proportzionalak zirela:

- erantzukizunpeko adierazpena, Turismo Legean ezarritakoak betetzen zituztelarik. Era berean, oso positibotzat jo zuen bide telematikoen bitartez aurkezteko aukera ematea, eta, horrez gain, jaso beharreko datuak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa zentzuzkoak zirela ere adierazi zuen.

- ETEek bete beharreko eskakizunak aztertuta, ez zirela oztopo jarduera ekonomikoa ustiatzen hasteko.

- etxebizitzaren eskuragarritasun-baldintzak, baita segurtasunari, bereizgarriei eta erantzukizun zibileko aseguruari eta aseguraturako gutxieneko kapitalari buruzko betekizunak ere.

² Azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa

Azkenik, LEKek iritzi zuen jabeen erkidegoak zirela etxebizitzetan jarduera ekonomikoak aurrera eramatea mugatzeko edo debekatzeko entitaterik egokienak.

Eraikinen Ikuskapen Teknikoak arautzen dituen dekretu- proiektuari buruzko txosten osagarria, Konstituzio Auzitegiaren 143/2017 Epaia eraginari buruzkoa

LEA/AVC honek 2017ko azaroaren 21ean eman zuen etxebizitzaren arloko Eusko Jaurlaritzako sail eskuduna izapidetzen ari zen Eraikinen Ikuskapen Teknikoari (EIT) buruzko dekretu-proiektuari dagokion txosten arauemailea. Txosten horretan, honako hau adierazi zuen:

- EITak egiteko arkitektoen eta arkitekto teknikoen aldeko jarduera-erreserba ez dago erregulazio ekonomiko eraginkorraren printzipioetan justifikatuta.
- Modu larrian murrizten du zerbitzu profesional horien merkatuko eskumen eraginkorra eta ez da ez beharrezkoa ezta proportzionala ere.
- Eraikinetako segurtasun-, bizigarritasun- eta erosotasun-baldintzak lortzea behar beste bermatzen da EITak eraikuntza-proiektuak egiteko, obrak zuzentzeko eta obra-exekuzioak zuzentzeko gaituta dauden teknikariek eginez gero, administrazio-, osasun-, erlijio-, bizitegi- (horren aldaera guztietan), irakaskuntza- eta kultura-erabilera ez duten eraikinen kasuetan.
- Dekretu-proiektuaren 10. artikulua Lurzoruari eta Hiri-birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bateginari (LHBLTBri) eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeari (EALri) egiten dien erreferentzia ez da murriztaileztat hartu behar EITak sinatzeko gaikuntza profesionala zehazteko.

LHBLTBk (30. artikuluan) ezarri zuen Eraikinen Ebaluazioaren Txostena (Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren baliokidea) teknikari fakultatibo eskudunek nahiz, hala dagokienez, autonomia-erkidegoetan egon daitezkeen ikuskaritza-erakunde erregistratuek egin dezaketela, betiere teknikari eskudunak baldin badituzte –EALen ezarritakoaren arabera, proiektuak idazteko edo obrak eta eraikuntza-obren gauzatzeak zuzentzeko gaikuntza ematen duen edozein titulazio akademiko eta profesionalen jabe den edo lege horretako lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, txostena egiteko behar den

kualifikazioa duela egiaztatu duen edozein pertsona-. Ikusita LHBLTBren 30. artikulua konstituzioaren aurkakoa izateagatik baliogabetu zuen Konstituzio Auzitegiaren epaia (143/2017), eta horrek LEKek 2017ko azaroaren txostenean emandako argudioak sendotzen dituela, LEKek txosten osagarri bat eman zuen, besteak beste, honako hauek aipatu zituen:

- Ez dago lanbide baten aldeko legeko jarduera-erreserbarik EITak egiteko.
- Beraz, EITak egiteko prestakuntza profesionalak ez daude Estatuko ezein legeri lotuta, salbu eta zerbitzu-jardueretarako sarbide askea izateari eta eskubide hori erabiltzeari buruzkoetan.
- Etxebizitzaren Legearen 52. artikulua garatzeko Eusko Jaurlaritza (EJ) izapidetzen ari den dekretu-proiektuan, desagertu egin beharko dira Konstituzio Auzitegiak deuseztatutako LHBLTBko manu guztiei buruzko erreferentziak (30. artikulua eta Azken Xedapenetatik Lehenengoa), bai formalki bai materialki, eta ezingo dio eutsi haien edukiari (Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen eraikuntza-prozesuan esku hartzeko gaitutako lanbideen katalogoa birbidaltzea).
- Dekretu-proiektuak EAL aipatzen du kualifikazio profesionalak zehazteko, eta lege horrek ez ditu EITak arautzen, eta, halaber, EITak ez du obra-proiektuaren izaerarik, ez eta obren zuzendaritzaren nahiz obra-exekuzioaren izaerarik ere.
- EITak egiteko kualifikazio profesionala zehazteko, Administrazio publikoak ezin du soilik titulazioa hartu aintzat; izan ere, horrez gain, badira beste faktore batzuk eraikinen kontserbazio-egoeraren ebaluazioa egiteko behar den prestakuntza zehazteko balio dutenak.

Euskadiko Kooperatiben Legearen aurreproiektua

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailak egindako Kooperatiben Legearen Aurreproiektuari dagokionez, LEA/AVC-k aldeko txostena eman zuen. Bertan, arauaren artikuluetan kooperatibak lehiaren defentsaren araudiaren mende daudela adieraztea gomendatu zuen.

Euskadiko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Artxiboen Legearen Aurreproiektua

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika

Sailak Agintaritza honi eskatu zion Euskadiko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Artxiboen Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena emateko.

Aurreproiektu horren xedea da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo eta agiri publiko eta pribatuen kudeaketa, tratamendua eta antolamendua arautzea, honako hauek bermatzeko: erakundeen funtzionamendu hobea, kudeaketa publikoaren gardentasuna, informazioaren berrerabilpena, herriarren eta administrazioen eskubideen jagoletza, eta EAEko esperientzia kolektiboa jasotzen duen agiri-ondarearen eskualdaketa. Aurreproiektuaren zioen azalpenean adierazitakoaren arabera, arauak erantzuna eman nahi die, gizarte digitalaren testuinguruan, dokumentuen kudeaketa integralak planteatzen dituen erronkei, kontuan hartuta artxiboen antolaketa egokitu eta zorrotza behar dela.

Igorritako aurreproiektuaren klausulak aztertu ondoren, honako hau ondorioztatu zuen LEKek: ez zen ikusi aurreproiektuak lehiari sarrera-mugarik edo oztoporik jartzen zionik. Ondorioz, legearen aurreproiektuaren aldeko txostena eman zuen 2018ko irailaren 19an.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen-administrazioari buruzko Legearen Aurreproiektua

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko Legearen aurreproiektuari buruzko txostena emateko eskatu zion LEA/AVCri.

LEA/AVC-k positiboki baloratu zuen administrazioak aurkeztutako proposamenak esku-hartzearen prozedura sinplifikatzeko egindako ahalegina, baita jardura ekonomikoari jarritako eta beharrezkoak ez diren oztopoak kentzeko ahalegina ere.

Illo beretik, begi onez ikusi zuen aurreproiektuak gardentasunarekin eta ingurumenarekin erlazionatutako politika publikoak diseinatzean eta gauzatzean parte-hartze publikoari emandako garrantzia.

Horregatik, LEKek 2018ko urriaren 18an Erkidegoko Ingurumen-administrazioari buruzko Legearen Aurreproiektuaren aldeko txostena eman zuen. Txosten horretan zenbait gomendio eman zituen lehiaren ikuspuntutik, eta honako hauek nabarmen daitezke:

- Legea oinarritzen den printzipioen artean ezartzea arautze ekonomiko eraginkorraren, premia-aren, proportzionaltasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak (3.1 artikulua).

- Teknikari eskudunaren erreferentzia ezartzea ingurumen-ebaluazioko dokumentazioa lantzerakoan, alboratuz tituluei edo profesio arautuei buruzko aipamenak, lehendik jardunean ari diren operadoreek erabil ditzaketelako, zerbitzu horietarako sarbidea murrizteko (25. eta 63. artikulua).

- Zehaztea ebaluazioa egin behar izateko betebeharretik salbuetsita gera litezkeen proiektuen kategoria eta, nolabai ere, zioa interes orokorreko arazoietan oinarrituta egon dadila, ingurumenaren babesa zalantzan ipini gabe (59.2 artikulua).

- Kontratuaren xedezehatzetik kanpogera zendirenen tasuna duten neurriak hartzea egin behar litzatekeela haiek bateragarri eginez eraginkortasunaren, konkurrentziaren eta eskaintzaileen arteko bereizkeriarik ezaren printzipioekin (81. artikulua).

Euskadiko Natura Ondarearen Kontserbazio Legearen Aurreproiektua

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskadiko Natura Ondarearen Kontserbazioari buruzko txostena eskatu zion LEA/AVCri.

LEKek 2018ko urriaren 18an eman zuen txostena, eta bertan adierazi zuen lege-aurreproiektuak natura-ondarea babesteko finkatzen zituen mekanismoak hasieran ekonomia-jardueren oztopo izan litezkeen arren, interes publikoko beste helburu posible batzuen aurrean –haien artean, enpresa-askatasuna– ingurumen-babesa lehenesteko beharrari erantzuten ziotela.

Hala ere, aurreproiektuaren testua merkatuko lehiaren ikuspegitik hobetzeko, LEA/AVC-k legearen oinarri izango diren printzipioen artean (3.1 artikulua) arauketa ekonomiko eraginkorra, beharra, proportzionaltasuna eta bazterkeriarik eza barne hartzea gomendatu zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoko ibilgailuen hornidurarako langilerik gabeko instalazioek bete behar dituzten baldintzei buruzko dekretu-proiektua

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko ibilgailuen hornidurarako langilerik gabeko instalazioek bete behar dituzten baldintzei buruzko dekretu-proiektuaren gaineko txostena eskatu zuen.

EAEko erregaien txikizkako banaketa-merkatuak sektorearen berezko ezaugarriak ditu (kontzentrazio bertikala, enpresen kontzentrazioa eta hornidura eskusiboko hitzarmen-sare paraleloak), baina beste eremu geografiko batzuetan baino nabarmenago. Era berean, A gasolioaren eta 95 gasolinaren zergen aurreko prezioak penintsulako handienak direla ikusi da eta, era berean, batez bestekoa EBko batez bestekoaren gainetik dagoela. Prezio altuago horiei EAEk beste autonomia-erkidego batzuekiko izan duen lehiakortasunaren galera progresiboa gehitu behar zaio.

LEA/AVC-k 2018ko azaroaren 15ean eman zuen dekretu-proiektuaren aldeko txostena, baina murrizketa edo baldintza batzuk hobeto justifikatzeko beharra ikusi zuen: dekretu-proiektuak baldintza osagarriak gehitzen zizkion 706/2017 Errege Dekretuan³ ezarritako baldintzei, eta LEA/AVCren ustez, baldintza horiek guztiek ez zituzten premiaren, proportzionaltasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak betetzen.

Uztailaren 3ko erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko 101/2018 Dekretuaren Lehen Xedapen Gehigarria

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Sailak erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriari buruzko txostena egiteko eskatu zuen.

LEA/AVC-k erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko dekretu-proiektuaren zirriborroaren aldeko txostena emana zuen aldeztu aurretik. Dena dela, geroago, dekretu-proiektu horren aplikazio-esparrutik kanpo utzi zuen agroturismoen eta landetxeen erregulazioa lehen xedapen gehigarri baten bitartez.

LEKek iritzi zuen lehen xedapen gehigarri horrek beharrezkoak eta neurrizkoak ez ziren sarrera-oztopoak ezartzen zizkiela landaguneko erabilera turistikoko etxebizitzetara jarduera ekonomikoari, eta, beraz, posizio pribilegiatua ematen ziela eragindako operadoreei.

Hori dela eta, muga horiek ezabatu egin behar dira. Bi aukera daude horretarako: alde batetik, 101/2018 Dekretua aldatzea eta aipatutako lehen xedapen gehigarri hori ezabatzea, eta, bestetik, landaguneetako erabilera turistikoko etxebizitza-establezimenduak arautzen dituen apirilaren 16ko 199/2003 Dekretua aldatzea. Azken kasu horretan, eguneratu egin beharko litzateke Turismo Legean ezarritakoari jarraikiz, eta, ondorioz, erabilera turistikoko etxebizitzak eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak gainontzeko ostatu-figuren baldintza beretan jarri beharko lirateke.

Hori gertatzen ez den bitartean, Turismo Legeak baimena ematen du landaguneetan edo lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako tokietan kokatutako alojamenduetan ostatu hartzeko («edozein motatako etxebizitzak»); beraz, ezingo du ez turismo-administrazioak ez udal-administrazioak debekatu.

LEKek txostenaren amaieran adierazi zuen erabilera turistikoko etxebizitzetara erregulazioei ezarritako murrizketak arrazoiak, neurrizkoak eta lehiaren aldekoak izan behar direla. Izan ere, murrizketa landagunean kokatuta dauden etxebizitzetara turismo-ostatua debekatzean besterik ez datza. Gainera, Turismoaren Legearen aurkakoa, neurritz kanpokoa eta lehia askearen aurkakoa da, lehiatzeko aukera kentzen baitie etxebizitza horien titularrei.

b. Elkargo profesionalen estatutuak

LEA/AVC-k txostena egin die elkargo profesionalen zenbait estatuturi. Kasu bakoitzetik eratorritako espezifikazioak kontuan izan gabe –jarraian adieraziko direnak–, lehiaren agintaritza honek behin eta berriz esan du elkargoek ezin dutela hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ezarri ere, lehia defendatzeko legediaren arau-hauste izan daitezkeelako. Edozein kasutan, akordio, erabaki edo gomendio guztiek Lehia Babesteko Legea (LBL) errespetatu beharko dute.

Era berean, elkargoaren jardunak elkargoko kideen interes korporatiboen defentsa soilaz harago joan

³ 706/2017 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, MI-IP 04 jarraibide tekniko osagarria —«ibilgailuak hornitzeko instalazioak»— onartzen duena eta petrolio-instalazioen erregelamenduen zenbait alderdi arautzen dituena.

behar duela ere gogorarazi da; kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak ere babestu behar ditu, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat etorriz.

Bizkaiko Abokatuen Elkargoa

Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak (Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak) Bizkaiko Abokatuen Elkargoko estatutuen aldaketak indarrean dagoen lehiaren defentsarako araudiarekiko duen egokitasunari buruzko txostena emateko eskatu zuen.

LEA/AVC-k 2018ko uztailaren 9an eman zuen aldeko txostena, eta elkargoari gomendatu zion estatutuetan berriaz aipatzeko abokatutza profesionalen arteko lehia askearen araubidearen barne gauzatuko dela. Gainera, txostenak estatutuetao lau manu aldatzeko eskatu zuen, lehiaren arloko araudiarekin bat egiteko. Azkenik, 18.4. artikuluko a) eta b) letrak ezabatzeko ere eskatu zuen, bertan bizilekuaren araberrako elkargokide-kategoriak ezartzen baitziren.

Arabako Abokatuen Elkarrea

Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak Arabako Abokatuen Elkargoko estatutuen aldaketak indarrean dagoen lehiaren defentsarako araudiarekiko duen egokitasunari buruzko txostena emateko eskatu zuen.

LEA/AVC-k 2018ko uztailaren 9an eman zuen aldeko txostena, eta elkargoari gomendatu zion estatutuetao berriaz aipatzeko abokatutza profesionalen arteko lehia askearen araubidearen barne gauzatuko dela. Gainera, txostenak estatutuetao lau manu aldatzeko eskatu zuen, lehiaren arloko araudiarekin bat egiteko. Azkenik, 18.4. artikuluko a) eta b) letrak ezabatzeko ere eskatu zuen, bertan bizilekuaren araberrako elkargokide-kategoriak ezartzen baitziren.

Arabako Higiezinan Jabetzako Agenteen Elkargo Ofiziala

Eusko Jaurlaritzaren Erregistroetako Zuzendaritzak Arabako Higiezinan Jabetzako Agenteen Elkargoko estatutuen aldaketak indarrean dagoen lehiaren defentsarako araudiarekiko duen egokitasunari

buruzko txostena emateko eskatu zien.

Aipatutako aldaketak ez zeukan lehia librearen kontrako inolako xedapenik. Hain zuzen ere, aurkezturiko aldaketak jatorri du Higiezinan Jabetzako Agenteen Bizkaiko Elkargo Ofizialak egindakoa; LEAk horren aldeko irizpena eman zuen 2017ko uztailan, eta, hala, elkargoak erakunde honen txostenean jasotako ohar guzti-guztiak gehitu zituen.

Horrenbestez, Arabako elkargoak proposatutako aldaketa eta aurrez LEAk ontzat emandako Bizkaiko elkargoaren estatutuak berdin-berdinak direnez, LEK-ek aldaketaren aldeko irizpena ematea erabaki zuen.

Gizarte hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren estatutuei buruzko txostena

Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko estatutuen aldaketak indarrean dagoen lehiaren defentsarako araudiarekiko duen egokitasunari buruzko txostena emateko eskatu zuen.

LEKek 2018ko uztailaren 26an eman zuen txostenean adierazi zuen elkargora batzea borondatezkoa dela gizarte-langileen kasuan, eta ez dela ezinbestekoa lanbidean jarduteko. Horregatik, estatutuen bitartez (8. eta 9. artikulua) Elkargoari lanbidearen antolamendua, zaintza, ordezkaritza eta defentsarako eskumenak ematea ez dago justifikatuta, eta, beraz, aldatzeko eskatu zitzaion. Arrazoi berregatik eskatu zitzaion sozietate profesionalak arautzen dituen 10.3. artikulua ezabatzeko.

Azkenik, lehia desleiala arautzen duen 21. artikulua ezabatzeko ere eskatu zitzaion; izan ere, lansari profesionaletarako arauak aipatzen dira bertan, eta hori debekatu egiten du Elkargo Profesionalen Legeak.

B. Kontratazio publikoa

a. Bilboko udal etxebizitzan enkantea

Bilboko Udal Etxebizitzan (BUE) sozietate publikoak LEA/AVC-ri eskatu zion txosten bat egiteko bi enpresek izandako jokabidea (Bilboko lonja bat alokatzeko BUEk sustatutako enkante batean) lehiaren arloko araudiaren arau-haustea izan zenetz aztertzeko.

Bi enpresa horiek etxebizitza berean dute egoitza,

eta ordezkari bera dute eskaintzak kudeatzeko. Lizitazioan, enpresa horietako batek atzera egin zuen enkantearen adjudikazioan, eta, beraz, salaketaren xede den bigarren enpresak lortu zuen adjudikazioa, hurrengo postuan baitzegoen sailkapenean. Adjudikazioari uko egiteagatik, garestitu egin zen Bilboko Udal Etxebizitzek ordaindu beharreko prezioa.

Dokumentazioa aztertu eta gero, LEKek 2018ko ekainaren 26ko txostenean adierazi zuen operadoreak ez zirela independenteak, elkarri lotuta zeudelako, eta, beraz, beren jarduketa bateratuek ez lioketela lehia askeari eragingo.

Dena den, egitate horrek kontratazio-araudiko proposamen bakarraren printzipioa hauts lezake, eta jarduketa hori kontratua egiteko debekurako arrazoi izan daiteke, Sektore Publikoen Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren⁴ 60.2.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Edozein kasutan, kontratazio-organoak baloratu beharko luke inguruabar hori.

b. Salgaien lurreko errepide bidezko garraio-zerbitzu komertziala garatzeko baimenak emateko baldintzen pleguaren aldaketa

2018ko ekainaren 29an, Bilboko Portu Agintaritzak igorritako idatzi bat jaso genuen. Bertan, LEA/AVC honi eskatzen zion interesgarriak zeritzen ekarpenak egiteko Bilboko Portu Agintaritzaren onespina jaso aurretik, 2015eko abenduaren 17an onartutako Bilboko Portuko zerbitzu-eremuan errepide bidezko garraio-zerbitzu komertziala garatzeko baimenen baldintza partikularren pleguan txertatzeko proposatutako aldaketei zegokienez.

Plegua aztertzeke, kontuan hartu ziren Administrazio Publikoen (AAPP) Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 129. artikulua ezarritako printzipioak, administrazio publikoek araugintza onerako bete beharrekoak: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

2018ko uztailaren 9ko txostenean, LEA/AVC-k zenbait ohar egin zituen pleguen zirriborroan Baimen Orokorra (BO) zeritzona eskuratzeko eskatutako gutxieneko kaudimen ekonomiko eta finantzarioari buruz.

c. Partzela bat besterentzea, aparkaleku bat eraikitzea eta garaje-partzelak saltzea Astrabudua auzoan (Erandio)

Erandio Elizateko alkate-presidente jaunak kontsulta bat egin zuen Udalak deitutako eta adjudikatutako lizitazio publiko baten inguruan. Lizitazio publiko hori partzela bat besterentzeko, aparkaleku bat eraikitzeke eta Astrabuduako barrutian garaje-partzelak saltzeko xedearekin egin zen. Zehazki, aipatu udalak lurrazpiko aparkalekuko 120 plaza erostea (253tik) lehiaren arloko araudiarekin bat datorrenetz egin zuen kontsulta, hasierako lizitazioan ez baitzegoen aurreikusita.

Uztailaren 26an erantzun zion LEA/AVC-k, eta honako hau izan zen ondorioa:

- Administrazio publikoek merkatuetan esku hartzen dutenean, ondasunen eta zerbitzuen eskatzaile edo eskaintzaile nahiz erregulatzaile gisa, Lehia Defendatzeko Legearen eta gainontzeko ordenamendu juridikoaren menpe daude, legezketasunaren printzipioari jarraikiz.

- Aztergai den kasua kontratuaren egikaritze-faseari dagokio. Printzipioz, fase horretan ez dago merkatuko operadoreen arteko lehiarik, eta adjudikazioduna kontratuaren xedea betetzera mugatzen da.

- Udalak enpresa adjudikaziodunak saldu ezin dituen partzelak eskuratzeko konpromisoak, hala izatekotan, egikaritze-faseko kontratuaren aldaketa ekarriko luke.

- Egindako kontsultaren eduki literala dela eta, azpimarragarria da aldaketa hori proposatutako baldintzetan egingo balitz, ez lukeela per se lehiaren defentsarako legeria hautsiko.

- Dena den, logikoa dirudi ulertzea aldaketa horrek jatorrizko kontratuarekiko funtsezko aldaketa bat ekarriko lukeela, eta, horrenbestez, sektore publikoko kontratuen erregulazioaren ikuspuntutik, udalak baloratu beharreko garrantzi juridikoa hartuko lukeela.

- Edozein kasutan, ez dagokio LEA/AVC honi kontratuen arloaren gaineko legearekiko egokitasuna ebaluatzea.

⁴ Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua

C. Beste jarduera ekonomiko batzuk

a. Jabetza intelektual eta euskal udalerrietan duen eragina

Euskal Udalerrien Elkarteak (EUDEL) kontsulta bat egin zuen LEA/AVC honek argi zezan zein zen jabetza intelektualak euskal udalerrietan duen eragina. Horrez gain, arlo horretako lankidetzak-hitzarmenak sinatzea egokia zenetz galdetu zuen, edo aukera hobea ote zen SPLKLak⁵ egitea.

LEKek ondorioztatu zuen tokiko erakundeek ordaindu egin behar dituztela legezko eskubideak, zabaltzen dituzten lanen egileak zeintzuk diren kontuan izanik; horrenbestez, kudeaketa-erakunde bakar bateko erreperitorioan dauden autoreen lanak soilik komunikatzen badituzte publikoki, ez diote inolako eskubiderik ordaindu beharko bestelako kudeaketa-erakundeei.

Ondorioz, euskal udalerriek honako aukerak dituzte erabili nahi dituzten obren eskubideak kudeatzen dituzten erakundeekin lotuta:

- Udal bakoitzak indibidualki negoziatu eta kontratatu ditzake baimenen kontzesioak kudeaketa-erakundeekin, betiere baldintza zuzen eta ez-diskriminatzaileetan.
- Kudeaketa-erakundeekin kontratu orokorrak negoziatu eta egin ditzakete udal onarazari gisa jarduten duen EUDELen bitartez; kasu honetan, udal bakoitzak EUDELek adostutako hitzarmen orokorrekarekin bat egiten du gerora.
- Erakunde bakoitzaren tarifa orokorretan jasotako kopuruak zuzenean ordain ditzakete, aldez aurretiko inolako negoziatorik gabe.

Era berean, ondorioztatu zuen hitzarmenak direla udalentsat figura juridiko egokia kudeaketa-erakundeekin legalki aurreikusitako ordainsarien zenbatekoak adosteko, bai indibidualki bai kolektiboki.

Hitzarmen horiek honako eduki hauek izan behar dituzte gutxienez: hitzarmena sinatzen duten aldeetako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen; Administrazioaren jarduketak zer

eskumenetan oinarritzen den; hitzarmenaren xedea eta alde bakoitzak berau betetzeko egin beharreko jarduketak; aldeetako bakoitzak hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak; hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeak dituen ondorioak; hitzarmena behar bezala betetzen dela jarraitu, zaindu eta kontrolatzeko mekanismoak; hitzarmena aldatzeko araubidea; eta hitzarmenaren indarraldia. Hitzarmenak iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez. Aipatu epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren alde sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea.

b. Tokiko azoka eta merkatuetako saltokien esleipena

Arartekoak eta LEA/AVC-k EAEko udalerrietan egiten diren tokiko azoketako merkatuetan sartzea ezinezkoa dela dioten operadore ekonomikoen kexak eta salaketak jaso zituzten.

2018ko maiatzaren 22ko txostenaren bitartez, LEA/AVC-k udalen araudiek eta jarduerak lehia askeari eragiten ote dioten aztertu zuen, produktuak kalean sal ditzaketen operadore ekonomikoak hautatzeari dagokionez.

Noizean behingo merkatuetan jarriko diren saltokiak hautatzeko prozedura udal bakoitzak zehazten du, betiere lehia-araudia eta gardentasunaren, inpartzialtasunaren, diskriminazio ezaren eta publikotasunaren irizpideak errespetatuz. Edozein kasutan, hautaketa-prozesuak ezin du nazionalitate-, erresidentzia- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatu.

EUDELen kalez kaleko salmentarako ordenantza-ereduaren 8.3 artikuluan ezartzen da saltokiak hautatzeko interes orokorreko irizpideen zerrenda irekia. Hauek dira irizpide horiek: esperientzia, prestakuntza, eskatzailearen egoera ekonomiko eta soziala, produktuaren kalitatea, etab. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen dugu udalek aipatutako ereduak erabiltzen dutenean irizpide bakoitzaren haztapen bat gehitzea eta irizpide orokor horiek puntuatzeko elementu objektiboak ematea.

⁵ Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak –horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora–

Hautemandakoaren arabera, udalek ia inoiz ez dituzte haztatzen aipatutako interes orokorreko irizpideak, eta irizpide bakoitza nola puntuatuko den ere ez dute ezartzen. Horren ondorioa lehia, gardentasuna, inpartzialtasuna, diskriminazio eza eta publikotasuna lehenesten dituen araudiak lortu nahi duenaren juxtu kontrakoa da.

Printzipio horien haztapenari jaramonik ez egitearen zuzeneko ondorioa da autonomia-erkidegoan egiten diren azoka tradizioaletan parte hartzeko baimena jaso ez dutenek defentsarik ez izatea. Azken emaitza, berriz, aipatu noizean behingo merkatuon arteko lehia falta da.

LEA/AVC-k Bizkaiko Foru Aldundiari (BFA), EUEDELi eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioari 65/2015⁶ Foru Dekretuari gehitutako klausula bera hitzez hitz gehitzeko eskaera egin zion, BFAk kudeatzen duen erroldan inskribatuta ez dauden ekoizleek eta egileek Bizkaiko merkatu eta azoka tradizioaletan parte hartzeko aukera izan zezaten.

c. Txakur-trebatzaile ikastaroak

ZAUNK SL enpresak enpresa lehiatzaileak salatu zituen, Eusko Jaurlaritzak (EJ) homologatutako txakur-trebaketa ikastaroak beren webguneetan iragartzen zituzten eta. Salatzailearen hitzetan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bakarrik eman ditzake aipatu profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko egiaztapena ematen duten ikastaroak.

2018ko irailaren 19an eman zuen LEA/AVC-k salaketa horri dagokion txostena. Bertan adierazi zuen ez zuela hauteman lehia askearen gaineko eragin negatiborik EJren txakur-trebakuntza ikastaroen homologazioari dagokionez.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoa arautzen duen Legeak (50/1999) ezartzen du zaintzarako eta babeserako trebakuntza administrazio-agintaritzak eskudunak emandako edo homologatutako gaikuntza-ziurtagiria duten trebatzaileek eman beharko dutela.

⁶ Bizkaiko Foru Aldundiaren 65/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 12koa, Bizkaiko lurralde historikoan egiten diren merkatu eta azoka tradizioaletan nekazaritza- eta elikadura-produktuak saltzen-ekoizten dituzten pertsonen errolda arautzen duen otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretua aldatzekoa.

⁷ 13/2018 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legea aldatzen duena ibilgailuak gidari eta guzti alokatzearen arloari dagokionez.

EAEn, EJK arautu du animalien edukitzea Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko 101/2004 Dekretuaren bitartez. Horrela, bada, dekretu horrek ezartzen du zaintzarako eta babeserako trebakuntza EJKo eta Arrantza Sailak emandako edo homologatutako ziurtagiria duten trebatzaileek eman beharko dutela.

d. Euskal Autonomia Erkidegoan gidaridun ibilgailuak (GTI) errentatzeko araubidea, 13/2008 Errege Lege Dekretua indarrean sartu dela eta

LEKek 2018ko abenduaren 13an onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan Gidaridun Ibilgailuen (GTI) zerbitzuak errentatzeko araubideari buruzko txostena, lehiaren ikuspegitik, 13/2018 Errege Lege Dekretua⁶ indarrean sartu dela-eta.

Txosten horrek ondorioztatu zuen GTlen jardura oso erregulatuta dagoen sektore batean egiten dela, eta sektore horretako araubidea oso esku-hartzailea izateaz gain, hainbat oztopo ezartzen dituela bai merkatuan sartzeko bai lanbidean jarduteko.

Azken erreformarekin batera (3/2018 Errege Lege Dekretua)⁷ aplikatutako aldaketekin areagotu egin dira oztopoak: GTlen zerbitzua hiriarteko ibilbideetara mugatuko da behin lau urteko trantsizio-epea bukatuta; bidaiaren abiapuntua baimena helbideratuta dagoen autonomia-erkidegoan egon beharko da eta mantendu egingo da aurrekontratazio-erregimena.

Hala, estatu mailan onetsitako arau berriak are gehiago murrizten du taxien eta GTlen arteko lehia berez lehia gutxi dagoen sektore batean, eta horrek ondorioak izan ditzake prezioetan eta zerbitzuen kalitatean. Horrez gain, berrikuntzarako pizgarriak ere murrizt litezake.

Errege lege-dekretuak gaikuntza berezia ezartzen die estatuaren eskumenen eskuordetzea jaso dutelako estatu-mailako GTI baimenak eman ditzaketen autonomia-erkidegoei. Horien artean Euskadi dago, eta gaikuntza horri esker, GTlen ustiaketa-baldintzak alda ditzakete autonomia-erkidego horiek.

Horregatik, LEA/AVC-k zenbait gomendio eman zituen autonomia-erkidego mailako egungo araubidea egokitzeko: ezabatu egin behar dira zaharkitutako alderdiak, eta premiaren, proportzionaltasunaren eta

diskriminazio ezaren printzipioak errespetatzen dituen araubide onaren printzipioetan oinarritu beharko da.

e. Dekoratzailen eta barnealdean diseinatzaileen konpetentzia teknikoa

LEA/AVC-k bi txosten-eskaera jaso zituen gai horri buruz, eta bietan gogorarazi du ezin direla legalki prestakuntza nahikoa duten profesionalak diskriminatu edo baztertu.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Dekoratzailen Elkargo Ofizialen eskaera

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Dekoratzailen Elkargo Ofizialek txosten bat emateko eskatu ziguten dekorazioa eta barnealdean diseinua egiten duten pertsonak beren zereginetako obren eta jardueren proiektuak sinatzeko duten eskumenari buruz. Elkargoen hitzetan, elkargokideen kexa ugari jaso dituzte udal-teknikariek oztupo asko jartzen dituztelako dekoratzaile elkargokideek sinatutako obren eta jardueren proiektuak baimentzeko orduan.

LEA/AVC-k 2018ko otsailaren 6ko txostenaren bidez erantzun zion kontsulta horri, eta honako hau ondorioztatu zuen:

- Barnealdean dekoratzaile eta diseinatzaileek eskumena dute dekorazio-proiektuak egin eta idazteko, baita dekorazio-lanak zuzentzeko ere, baldin eta ez badiete eragiten nahitaezko administrazio-lizentziak jaso dituen proiektu onartuan zehaztutako egiturazko elementu erresistenteei, eraikuntzaren konfigurazioari edota obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei.

- Halaber, arkitekto-titulua, arkitekto teknikoaren titulua edo aparejadore-titulua duenak ere egin ditzake barnealdean dekoratzaileek gauzatzeko eskumena duten jarduerak.

- EAEn, barnealdeak dekoratzen dituztenek sinatutako obra- eta/edo jarduera-proiektuetarako ukatutako udal-baimenak, elkargoek LEA/AVC honetan justifikatutakoak, EAEko udal kopuru txiki batean baino ez dira gertatu, eta horietan oso aldian behin. Horrek ez du esan nahi, hortaz, jarduera-erreserba baten aurrean gaudenik, eraikgingintzaren eremua barne-diseinua denaren kaltean handituta.

- Udalek, udalerrian eginiko obra txikiak kontrolatzeko ahalmenak erabiliz, ez dituzte kanpoan utzi edo

baztertu behar horien obra-proiektuak egin ahal izateko eta obra horiek zuzendu ahal izateko legezko eskumenak dituzten profesionalak. Administrazio Publikoak merkatuetan esku hartzen duenean lehia askea bermatu behar du eremu guztietan eta jarrera neutrala eduki behar du.

Txosten hori EAEko udal guztiei igorri zien LEA/AVC-k haren berri izan zezaten eta zegozkion ondoreak izan zitzaizkien.

Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen eta Dekoratzailen Elkargo Ofizialak eginiko kontsulta

Gipuzkoako Barne Diseinatzaileen eta Dekoratzailen Elkargo Ofizialak kontsulta bat egin zion LEA/AVC-ri Donostiako Udalak ukatutako obra-lizentzia batek lehiaren arloko araudiarekiko zuen egokitasunari buruz. Lizentzia-ukapen hori dekorazioa eta barne diseinua egiten zuen profesional batek sinatutako proiektu batekin batera aurkeztutako erabilera-aldaketa bat egiteko eskaerari eman zitzaion, zehazki, lokal bat etxebizitza bihurtzeko. Are gehiago, kontsulta zabaldu egin zuen; izan ere, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak (EHAE) sistematikoki aurkaratzen ditu administrazioarekiko auzien epaitegian goi-arkitektoak ez diren tituludunen proiektuetan oinarrituta eman diren etxebizitza-gaikuntzarako udal-lizentziak.

LEA/AVC-k 2018ko azaroaren 15eko txostenaren bidez erantzun zion kontsulta horri, eta honako hau ondorioztatu zuen:

- Hirigintza-lizentzia administrazio-egintza baimentzaile bat da, eta, horren bidez, hirigintza-administrazioak modu arautuan kontrolatzen du obren, lurzorua erabileren edo edozein hirigintza-eraldaketaren legezkotasuna. Hori dela eta, kasuan kasuko toki-administrazioak, obra-lizentziak ematean edo ezestean, botere publikoaren ahalak erabiltzen ditu, eta ez dihardu eragile ekonomiko gisa; beraz, kasu horretan, ez dagokio LBLa zuzenean aplikatzea.

- Alabaina, administrazioak merkatuetan esku hartzen duenean lehia askea bermatu behar du eremu guztietan eta jarrera neutrala eduki behar du. Horrela, bada, udalek, beren udalerrian egiten diren obra txikiak kontrolatzeko ahalak baliatuta, ezin dituzte baztertu edo kanpoan utzi nahikoa lege-ahalmen duten profesionalak.

⁸ Ikus memoria honetan: Eraikinen Ikuskapen Teknikoak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzko txosten osagarria, Konstituzio Auzitegiren 143/2017 Epaia iruzkioa.

- Hala gertatuz gero, edozein interesdunek, bere eskubideak edo interes legitimoak urratu direla uste badu, hala badagokio, dagokion erreklamazioa jar dezake (Espainiako Konstituzioa, 24. art.).

3. Aurkaratzea

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, LEA/AVCK ondoko egintza hauek aurkaratu ahal izango ditu administrazioarekiko auzien jurisdikzioan: EAEko administrazio publikoen (erkidegoko, foru- eta toki-administrazioak) egintza administrazio-zuzenbideari lotuak eta legea baino behezagoko xedapen orokorrak, haien bidez merkatuko benetako lehiari oztopoak jartzen baldin bazaizkio.

Jarraian adierazten dira Agintaritzak aurkaratutako arauak edo LEKek arauak aurkaratzeko hartutako erabakiei buruz eman diren epaiak.

A. Uri Zaharraren Berregokipenerako Egitamu Bereziaren aldaketa

2016ko maiatzaren 23an, LEKek Bilboko Uri Zaharraren Egitamu Bereziaren alegazio-txostena onartu zuen. Bertan ondorioztatzen zuen Berregokipenerako Egitamu Bereziaren (BEB) proposatutako neurriek oztopoak jartzen zizkietela egitasmo ekonomikoari, eta oztopo horiek ez zituela premiazko interes orokorrak justifikatzen, arrazoi ekonomikoek baizik.

Hala eta guztiz ere, Bilboko Udalak aipatu BEBaren aldaketa behin betiko onestea erabaki zuen. Aldaketa horren bitartez, araubide berri bat ezarri zen hiri-erabilera batzuetarako, besteak beste, ostalaritzarako. Horretarako, zonifikazio berri bat eta horrekin bat zetozen aldaketa batzuk ezarri zituen.

Hori ikusita, LEKek Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean aurkaratzea erabaki zuen. Hark partzialki hartu zuen aintzat 2018ko urtarrilaren 29an, eta deuseztatu egin zituen kreditu-erakundeei eta aseguru-konpainien arteko distantzien araubideari buruzko artikulua. Dena den, ezeztatu egin zuen gainerakoari eragiten zion errekurtsioa, barne hartuta ostalaritza-establezimenduen arteko gutxieneko distantziak.

B. 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa

Uztailaren 24an onartu zen 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa (2018ko irailaren 5eko EHAA), agintaritza honek egindako oharrei jaramonik egin gabe⁸. Izan ere, jarduera profesional jakin batzuei erreserbatzen zitzairen, eta argi eta garbi mugatzen zitzairen jarduera horretara sartzeko eta jarduera hori egiteko aukera beste profesional batzuei; gauzak horrela, profesional horiek baztertu egiten dira zuzenbideak ezarritakoaren aurka.

Horregatik, 2018ko urriaren 18an LEKek aipatu 117/2018 Dekretuaren 10. artikulua eta 1. eranskinaren 1.a) apartatua aurkaratzea erabaki zuen egin beharreko lege-izapideak egin eta gero.

4. Kotsultak


Herritarrek, administrazioak eta operadore ekonomikoek zenbait bitarteko balia ditzakete lehiari buruzko kotsultak egiteko, hala nola posta arrunta, telefonoa, posta elektronikoa – <http://www.competencia.euskadi.eus>-en eta Infocompetencia@avdc.eus helbidera zuzenduz– edo aurrez aurre egin ditzakete.

Kotsulten ebazpena kotsulta egin duen pertsonari edo erakundeari igortzen zaio, eta haren tratamendua guztiz konfidentziala da. Batzuetan, gaiaren eta interesaren arabera, ebazpen hori sustapen-txosten batean jaso daiteke, eta are zehapen-espediente bihurtu ere, baldin eta kotsultaren tratamenduan lehia kaltetzen duten jokabideak daudelako zantzu nahikoak hautematen badira.

2018an kotsulten % 43 enpresek egin dituzte, eta gainerakoak partikularrek, administrazioek eta elkarte eta elkargo profesionalek, proportzio berean.



Kotsulten % sektoreka eta kotsultagile-motaka



5. Gaurkotasun-gaiei buruzko gidak eta txostenak



A. Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko gida

2017ko azaroaren 9an argitaratu zen BOEn 2018ko martxoaren 9an indarrean jarri zen SPKL. SPKL lehia askea printzipio inspiratzaile gisa zaintzeko xedeaz jaio zen. Zentzu horretan, aurreko araudiek baino zeregin garrantzitsuagoa ematen die lehiaren agintaritzei.

Gida horretan kontratazio publikoaren berritasunak jasotzen dira lehiaren ikuspegitik, eta haren xedea praktikoa da, nagusiki; izan ere, eremu horretan esku-hartzen duten kontratazio-organo eta profesionalei jarraibideak ematea da asmoa, baita hirugarrenei kalte egin diezaieketen kontu eta zantzu posibleak identifikatzea ere.

Gida hori LEA/AVCren webgunean dago eskuragarri, eta, horrez gain, Euskadiko erakunde eta kontratazio-organo nagusiei helarazi zaie.

B. Alokairu turistikoko etxebizitzaren araudi berria

Lankidetzak-ekonomia mundu-mailako joera gisa sartu da jardura ekonomikoaren eguneroko bizitzan, eta, hortaz, negozio-eredu berriak eta joera hori indarreko mekanismo juridikoei nola egokitzen zaizkien aztertu behar da. Besteak beste, erabilera turistikoko etxebizitzak etengabe hazten ari den sektore horietako bat osatzen dute.

LEA/AVC-k gai horri heldu dio lehiaren eta erregulazio onaren ikuspegitik. Gai hori buruzko zenbait txosten eman ditu, arauari buruzkoak, baina azterlan honekin harago joan nahi izan du: asmoa kasuetan sakontzea izan da, EAEko eremu geografiko ezberdinetako errealitateak aintzat hartuz eta erreferente gisa munduko hiri ezberdinetako egoren analisi konparatua erabiliz.

Azterlanak gomendio gisa identifikatzen du jardunbide onen katalogo bat, erabilera turistikoko etxebizitzaren gaineko eskumena duten administrazio publiko ezberdinek kontuan har dezaten. Hala, lagundu egiten du lehiaren ikuspegitik jardura ekonomiko horretan aplikatzeko egokia izango den araubide-esparru bat identifikatzen.



C. Lehia prozesuetako datu-erabilera handiaren eraginari buruzko azterlana

Datuek –eta bereziki makrodatuek edo datu masiboek eta haien gurutzaketak eta ustiaketak, algoritmo konplexuen bidez– eragina dute lehia-prozesuan, merkatuarentzako informazio garrantzitsua gordetzen dutelako.

Datuen erabileraren garrantziaren hasierako balorazio bat egin eta gero, azterlana bi zatitan banatuta dago sistematikoki.

Lehen zatian errealitate berri horrek merkatu-egitura nola aldatu duen aztertzen da. Bertan ikus daiteke eragin anibalenteak dituela: alde batetik, onuragarriak dira (efizientzia ekonomikoa), baina, bestetik, lehiaren eskaintza murrizteko arriskua dakarte, halabeharrez lehiaren defentsarekiko arau-hausterik egin gabe bada ere.

Bigarren zatian, lehiaren aurkako gisa kalifika daitezkeen datuen erabilera-jokabideak azaltzen dira. Ilido beretik, jokabide horiek lehiaren arloko araubidearen aplikazio-esparruan egon litezke, eta beraz, pertsegi daitezke.



6. Lehia ikastetxeetan

A. Unibertsitatea

a. Abokatutzaren Jarduerako Masterra (Deustu)

2018ko otsailean, LEA/AVC-ko lehiako arduradunak, Guillermo Aranzabek, Lehiaren Zuzenbidea irakasgaia eman zuen Abokatutza Jarduerako 2018/2019ko unibertsitate-masterrean, euskaraz. 6 ordu iraun zuen, 3 egunetan banaturik.

LEA/AVCren ustez, ezinbestekoa da euskal abokatuen promozio berriek trebakuntza sakona izatea lehiaren zuzenbidearen arloan. Horrek, enpresa eta profesionalei emandako aholkularitza juridikoaren bitartez edo lehiaren kontrako jardueren salaketaren bitartez, EAEko merkatuetako lehia askearen egoera hobetzea ekarriko du eta, ondorioz, euskal herritarren ongizatea areagotuko du.

b. Praktika-programak

LEA/AVC-k lankidetzak hitzarmen batzuk sinatu ditu zenbait unibertsitateekin, lehiaren defentsari berezkoak zaizkion eremuetan sakondu nahi duten ikasleei prestakuntza praktikoa emateko. Honako hauek dira jatorri-unibertsitate eta -ikasle-kopurua:

- Deustuko Unibertsitatea: 3 (Zuzenbidea)
- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU): 2 (Gizarte eta Komunikazio Zientziak)

Agintaritzak eskerrak ematen dizkie parte hartu duten ikasleei beren lanagatik, esfortzuagatik eta inplikazioagatik.

B. Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak

LEA/AVC-k unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan sustatu du lehia, zehazki, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten honako ikastetxeetan: Larramendi Ikastola HLBHIP (Mungia) eta Artaza-Romo BHItik etorritako 100 ikaslek hartu dute parte.

LEA/AVC-k emandako hitzaldi horien edukiaren xedea da ikasleengan piztea enpresaren askatasunaren printzipioaren menpean egongo den eta lehia askearen eta leialaren parametroak beteko dituen merkatu bat izatearen garrantziaren kontzientzia.

Saio horietan sarrera teoriko bat egiten da lehenik, eta, gero, lehia mugatu duten kasu errealak aurkezten zaizkie, baita herritarren eguneroko bizitzan izan dituzten eragin negatiboak ere.

Ainara Herce, lehiako arduraduna, Artaza-Romo BHean eginiko aurkezpenean



IV. Lehia defendatzea



1. Jarduera finkatua

2018an, lehiaren aurkako ustezko 37 jokabide aztertu dira lehiaren defentsaren jardunean, eta 9 izan dira LEKen ebazpenen xede. Espediente horien artean bereziki azpimarragarria da autoeskola-enpresen kartela; izan ere, lau enpresek jaso dituzte zehapenak kontsumitzaileei aplikatutako tarifei buruzko akordio bat sinatu zutelako.

Kasu horietan guztietan aplikatu da LBLn araututako zehazpen-prozedura berezia. Prozedura horretan bata bestearen atzeko bi fase daude aurreikusita, eta fase bakoitza organo ezberdin eta bereizi baten aurrean gauzatzen da: batetik, Ikerketa Zuzendaritza (IZ) dago, instrukzioaz arduratzen dena, eta, bestetik, LEK, ebazpena ematen duena. LEKen ebazpena espedientearen artxiboa, zehatzeko ebazpena edo itundutako amaiera izan daiteke⁹.


Elkargo profesionalak eta kontratazio publikoa defentsa-kasuen ia erdian egon dira presente, eta proportzioa 2017ko kasuen antzekoa izan da. (Ikus Grafikoa: Defentsa: proiektuak eta sektoreak).

Beheko grafikoan ere, LEA/AVC-k erakunde autonomo gisa abiatu zenetik izapidetutako espedienteak biltzen dira¹⁰ (Ikus: Grafikoa izapidetutako proiektuen kopurua)


LEA/AVC-k ezarritako zehapenei dagokienez, 2018an Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiak -EAEko Administrazioaren diru-bilketaren arduradunak- 4.800.000 € inguru jaso ditu kontzeptu horregatik.

Datozen apartatuetan xehetasun handiagoz jasotzen dira espediente horiei dagokienez garrantzitsuak izan diren jarduera eta ebazpenak, barne hartuta aurreko urteetan ebatzitako espedienteen eragiten dieten eta ekitaldi honetan eman diren epai judizialak.

Defentsa: proiektuak eta sektoreak



Defentsa: izapidetutako proiektuen kopurua



⁹ Honako LEA/AVCren 2017ko jardueren memoriaren esteka honetan zehapen-prozeduraren prozesuaren diagrama kontsulta daiteke. http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/memoria_actividades/es_memoact/adjuntos/Memoria_2017_web_es.pdf. Bertan ikus daitezke prozeduraren fase ezberdinak

¹⁰ Laugarren urteko memoriaren datuek urtebete baino gehiagoko aldia jasotzen dute (2015eko uztailetik 2016ko abendura arte). Bosgarren urteko memoriak 2017. urte naturala hartzen du barne.

2. Ebazpenak

A. EAEko eskoletako jantoki publikoak

2017ko azaroaren 15ean, Aibak Trs SL (AIBAK) sozietate komertzialak salaketa bat jarri zien Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (CNMC) aurrean AUZO LAGUN S.KOOP. (AUZO LAGUN) eta Cocina Centra Magui S.KOOP. (MAGUI) merkataritza-sozietateei Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko ikastetxe publikoetako kudeaketa zuzeneko jantoki-zerbitzueta catering-zerbitzua kontratatzeke lehiaketaren (C02/010/2015) adjudikazioa kontrolatu izanagatik.

2017ko abenduaren 11n, CNMC-ko Lehiaren zuzendariak LEA/AVCren aldeko esleipen-proposamenarekin bat egin zuen.

Salaketa hori bat zetorren AIBAKek 2016ko martxoaren 18an LEA/AVCren aurrean AUZO LAGUN, MAGUI eta Gastronomía Cantábrica SL (GASCA) enpresen aurka aurkeztutako salaketarekin. Orduan salatu zen enpresa horiek aurretiazko akordioak egin zituztela 11., 13., 14., 15. eta 17. loteei dagokienez, lote horiek aipatu C02/010/2015 lizitazioan eskuratzeko.

Hau da, salaketa berriak aurretik analizatutako salaketaren xede bera zuen. Dena den, salaketa berria 2016an salatutako bost loteetatik bitan baino ez zen zentratzen, eta bi sozietateren aurka jarri zen.

Lehen salaketan, espedientean jasotako informazioa eta lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak zehatz-mehatz aztertu ostean, ezin izan zen egiaztatu merkaturia banatzeko akordio bat zegoenik, LBLren 1. artikuluan tipifikatzen denaren arabera, ezta LBLren 2. artikuluen aurkako nagusitasun-tokiaren abusu bat egin zenik ere. Beraz, LEKek 2017ko urriaren 3an ebatzi zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea. Ebazpen hori irmoa da, horren aurkako errekurtsorik jarri ez delako.

2018ko urtarrilaren 18an LEKek ebatzi zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta bigarren salaketaren esparruan egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea; izan ere, ezin izan zen demostratu LBLren arau-haustea egon zelako zantzu nahikorik zegoenik.

Salatzaileak errekurtsua jarri zuen artxibatzearen aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren (EAEJAN) Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, eta 2018an ez da ebatzi.

B. Bizkaiko Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofiziala

Bartzelonako elkargoan sartutako higiezin jabetzako agente batek Bizkaiko Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialak salatu zuen ez ziolako erantzun elkarte horrek egiten dituen peritu-zerrendetan sartzeko bere eskaerari.

Elkartearen aurkako zehapen-espedientea hasi zenean, elkarteak salatzailea Bizkaiko barruti judizialtako peritu judizialen zerrendetan sartu zuen. Gainera, elkartearen estatutuak aztertuta, ondorioztatu zen horietan lehiaren aurkako arauak zeudela, baremo orientagarriei, derrigorrezko bisei, derrigorrezko tituluei eta abarri buruz.

LEKek ebazpen zehatzailea eman zuen 2018ko urtarrilaren 30ean HJAen Bizkaiko Lanbide-Elkartearen kontra, eta bi isun ezarri zitzaizkion: lehena, 400 €-koa elkarteko estatutuetan lehiaren aurkakoak direlako espresuki debekatu dauden zereginak mantentzeagatik, eta, bigarrena, 200 €-koa salatzailea peritu-zerrendan sartzea eragozteagatik.

2018ko martxoaren 28an, Elkarteak errekurtsu bat jarri zuen LEKen ebazpenaren aurka, eta indargabetu egin zuen EAEJANek 2018ko abenduaren 28ko epaiaren bidez.

C. Bizkaiko Ostalaritzaren Hitzarmenaren prestakuntza-plusa

Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialak salaketa jarri zuen Bizkaiko Ostalaritza Elkartearen aurka, Bizkaiko ostalaritzako sektoreko langileen prestakuntzaren eremuan egindako ustezko jardunbide batzuegatik, 2016-2017ko aldirako Bizkaiko Ostalaritzaren Sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren 20. artikulua arautzen duen «Prestakuntza-plusa» ezartzearen ondorioz.

Aipatu 20. artikulua horren arabera, sektoreko enpresek langileei plus konpentsatzailea ordaindu behar diete, soldata-izaera duen prestakuntzagatik; 25 €-ko 15 ordainsari, hain zuzen. Gainera, plus horren helburua

da sektorean kalitatezko prestakuntzaren garapena bermatzea eta sektorean enplegu egonkor eta kalitatezkoa lortzea; hain zuzen, hori ere funtsezko osagaia da lan-harremanean.

Alabaina, enpresak plus hori ordaintzetik salbuetsita egon daitezke, besteak beste, sektoreko prestakuntzaren garapenean aktiboki lan egiten duen enpresa-erakunde garrantzitsu batean parte hartzen duenean. Horixe da, hain zuzen, Bizkaiko Ostalaritza Elkartearen kasua.

Salatzailearen ustez, egitate horrek onurak emango lizkioke afiliatuei aholkularitza legala eta fiskala ere ematen dien elkarte horri.

Salaketaren xedeari dagokionez, LEA/EVC honek honako hauetan ezarritakoa gogorarazi zuen: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu (EBFT) (67. eta 151. artikulua), Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna eta Albany kasua, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 1999ko irailaren 21eko epaia. Lehenengo bien arabera, negozioaz eta ekintza kolektiboa oinarritzko eskubide dira, eta azkenengoan ebatzitaikaren arabera, lehiaren murrizketa-efektu batzuk berezkoak zaizkie enpresari eta langileen ordezkariak egindako hitzarmen kolektiboak.

Horregatik, LEKek 2018ko ekainaren 26an ebatzi zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea; izan ere, Bizkaiko ostalaritza sektoreko enpresari eta langileen ordezkariak egindako hitzarmenak ez dira EBFTren 101. artikuluan ezarritako aplikazio-esparruan sartzen prestakuntza-plusari dagokionez (beraz, LBLren 1. artikuluko aplikazio-esparruan ere ez), negozioaz kolektiboaren esparruan egiten direlako eta enplegatuen enplegu- eta lan-baldintzak hobetzera bideratuta daudelako.

Azkenik, aipatu zen hitzarmen kolektiboen legezkotasunaren edo kaltegarritasunaren kontrola gizarte-jurisdikzioari dagokiola, eta lehiaren defentsaren araudiak ez diela lehiaren agintaritzei, besteak beste, LEA/AVCri, hitzarmen kolektiboak justizia auzitegien aurrean aurkaratzeko legitimazio aktiborik ematen. LEKen ebazpena irmoa da.

D. Bizkaiko hormigoia

LEA/AVC-k LBLren 1. artikulua ustezko arau-hauste baten berri jaso zuen. Arau-hauste hori Bizkaiko hormigoia enpresa hornitzaileek hormigoia prezioa adostarekin eta hormigoia merkaturatzeko merkaturatzea banatzearekin lotuta zegoen.

Espedientean jasotako dokumentazioa aztertu eta gero -ikuskaritzetan konfiskatutako agiriak barne-, ez zen prezioa adosteari edo merkaturatzea banatzeari buruzko zantzu nahikorik aurkitu.

Horregatik guztiagatik, LEKek 2018ko uztailaren 26an erabaki zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta salaketaren xedearekin zerikusia duten jarduketak artxibatzea. LEKen ebazpena irmoa da.

E. Arrasateko autoeskolak

IZk espedienteari hasiera eman zion, egiaztatu baitzuen Arrasateko udalerrian B motako gidabaimena eskuratzeko operatzen zuten autoeskolak aplikatutako prezioa berdina izan zela 2013-2017 epealdian. Autoeskola arau-haulek bat zetozen tarifak aplikatu zituzten, zenbateko osoan zein B motako gidabaimena eskuratzeko irakaskuntza osatzen duten kontzeptu banakatuak (klase teorikoa+matrikula; klase praktikoak; azterketa praktikoa eta kudeaketa-gastuak).

Autoeskolen egitura-kostuetan ezberdintasunak hauteman ziren arren, ezberdintasun horiek ez ziren prezioetan islatu. Horrenbestez, ez zen hauteman, adostasun edo praktika paralelo kontzienteaz gain, tarifa berdina aplikatzea justifikatzen zuen beste arrazoirik. Gainera, azterketa konparatiboa egin eta gero, egiaztatu zen Arrasateko autoeskoletako tarifak beste merkatu geografiko batzuetakoak baino garestiagoak zirela, Gipuzkoako, EAEko eta estatuko beste udalerri batzuetakoekin alderatuta.

LEKek lau autoeskolak zehatzea erabaki zuen 2018ko irailaren 25eko Ebazpenean: Arrasate Autoeskola (792,50 €), Leniz Autoeskola (3.924,17 €), Peñakoba Autoeskola (3.135,35 €) eta Telleria Autoeskola (1.097,67 €). LEKen ebazpena irmoa da.

F. Errenteriako autoeskolak

Errenteriako lau autoeskolaren aurka jarritako salaketaren bitartez izan genuen autoeskola horien arteko akordio posible baten berri. Autoeskola horiek emandako aurrekontuen kopiak aurkeztu ziren.

Espedientean –Errenteriako autoeskoletak B gidabaimena lortzeko tarifa osatzen duten elementuetan prezio berdinak zein neurritan aplikatu zituzten aztertu eta gero– dokumentalki akreditatuta geratu zen autoeskola horiek ez zutela erreferentzia-prezioa aplikatu matrikula+prezio teorikoan, klase praktikoan, azterketa praktikoan eta kudeaketa-gastuetan aldi berean eta etengabe aplikatu aztertutako epealdian.

Bestalde, autoeskoletako bakoitzaren batez besteko prezioak erreferentziako prezioarekin duen aldea kalkulatu zen eta ikusi ahal izan zen autoeskoletako ezein ez zela aldi osoan zehar egon erreferentziako prezioarekiko (edo autoeskoletak gehien aplikatzen duten prezioarekiko) %4ko desbideratze onargarriaren barruan.

Azaldutako guztiagatik, LEKek 2018ko irailaren 25eko Ebazpenean adierazi zuen ez zela akreditatu Errenteriako autoeskoletak LBLren 1.1. artikuluan jasotako praktika debekatuak egin zituztenik. Zehazki, praktika horiek autoeskola guztiek tarifa berdinak aplikatzean oinarritzen dira, B motako gidabaimena eskuratzeko prestakuntzan. LEKen ebazpena irmoa da.

G. Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren Arbitraje Gortearen laudoa

Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko (BAEO) letradu batek jarritako salaketaren bitartez jakinarazi zitzaion LEA/AVCri elkargoko Arbitraje Gortearen laudo batean baremoak aplikatzeak eratorritako lehiaren aurkako jokabide posible bat.

Salatzaileak ulertu zuen Arbitraje Gorteak emandako laudoa Legelarien Euskal Kontseiluaren orientazio-arauetako baremoetan oinarritu zela; hori horrela, Gorteak LBLren 1. artikuluan aurreikusitako arau-hauste oso astuna egin zuela kontsideratu zuen.

Arbitraje Gorteak erabilitako irizpideak irakurrita, ezin izan zen ondorioztatu elkargoen edo Legelarien Euskal Kontseiluaren orientazio-irizpide eta -baremoak erabili zirenik, baizik eta Auzitegi

Gorenaren (AG) jurisprudentziako irizpide orokorrak, ezadostasunaren mami zehatzari ekitatez aplikatuak.

Horregatik, LEAk 2018ko urriaren 18ko Ebazpenaren bidez erabaki zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea, ez baitzen akreditatuta geratu LBL hautsi zela demostratzeko zantzu nahikorik zegoenik.

LEKen ebazpenaren aurkako errekurtsua jarri zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, eta 2018an ez da epairik eman horri buruz.

H. Araba Garapen Agentzia

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak (EHAE0) LBLren balizko hauste bat izan zitekeela jakinarazi zion Lehiaren Euskal Agintaritzari. Salaketaren arabera, lehia mugatu zen ARABA GARAPEN AGENTZIA SA (AGA) sozietate publikoak Iruña Okako Subillabide industrialdean pabiloi baten eraikuntza proiektua idazteko eta obren zuzendaritza esleitzeko egindako lizitazioan.

Salaketatik ondorioztatzen zenez, oinarritzko proiektua egin zuen enpresari mesede egitera bideratuta egon zitekeen AGAren jarduketa; izan ere, enpresa hori izan zen kontratuaren adjudikazioduna.

Lizitazioaren zenbait baldintza aztertu eta gero, ondorioztatu zen ez zegoelako inolako sarrera-oztoporik edo hirugarrenei kaltetzeko akordiorik lizitatzeke baldintzak akreditatzeko bitarteko hauei dagokienez:

- Kontratuaren xede den jarduerari dagokion urteko negozio-bolumenaren adierazpena, azken hiru ekitaldietakoa: ez zen hauteman oinarritzko proiektua egin zuen enpresari mesede egiten zionik, edozein lizitatzailerik kontratuaren bolumen bereko edo gehiagoko negozio-bolumeneko hiru urteetako bat bakarrik justifikatu behar baitzuen.

- Kontratuaren xede den jardueraren esparruan egindako kontraturen batek gutxienez lizitazioa motaren % 75eko edo gehiagoko banakako balioa izatea: LEKek neurritzkoa eta kontratuaren xedearekin lotutakoa zela ondorioztatu zuen, industria-eraikuntzaren eremuan kontratu bat sinatu izana beharrezkotzat jotzea azalpen nahikoa zabala baita berez, ez duena esperientzia izatea lizitazioaren xede den kontratuaren antzeko bat sinatu izanari mugatzen

esklusiboki, hau da, industria pabiloi bat eraiki izanari. Azkenik, oinarritzko proiektua egin izanagatik eta aurkeztutako proposamenak oinarritzko proiektu horrekin koherenteak izatea baloratu izanagatik ustez izandako lehia abantailari dagokionez, LEKek adierazi zuen Baldintza Tekniko Partikularren Pleguak ezartzen zuela lizitazioan parte hartzeko interesa zuten pertsona eta erakundeek aukera zutela pleguen gainerako dokumentazioa eta informazio osagarria eskatzeko. Ildo horretan, zenbait interesdunek oinarritzko proiektua eskatu zuten, eta kontratatzailearen profilean ere sartu zen, interesdun guztiei indibidualki jakinarazi zitzaizen bezala.

Horregatik, LEAk 2018ko abenduaren 13ko Ebazpenaren bidez erabaki zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea, ez baitzen akreditatuta geratu LBL hautsi zela demostratzeko zantzu nahikorik zegoenik. LEKen ebazpena irmoa da.

I. Taxiak eskatzeko gailuak

Radio Taxi Donosti Elkartek salaketa bat aurkeztu zuen. Salaketan LBLren 2. artikulua arau-hauste posible baten berri ematen zen, nagusitasunezko posizioaren abusuari lotutakoa, non ustez Equipamientos Gps Auriga SL (EGA) enpresak uko egiten zion Donostiako hoteletatik, jatetxeetatik eta ospitaleetatik taxiak erreserbatzeko balio duen gailu bat hornitzeari, taxien sektoreko beste erakunde batekin (Vallina) eskusibotasun-kontratu bat izateagatik.

Egiaztatu zen gailua hornitzeari uko egiteak soilik taxiak kontratatzen diren segmentu bati egiten ziola kalte –taxiak telefonogune baten bidez erreserbatzen diren segmentua–, eta ez ziola kalterik egiten *street taxi* izeneko segmentuei (bide publikoan dabiltzan ibilgailuak kontratatzea eta taxi geltoki gisa gaituta dauden gunetan ibilgailuak kontratatzea).

Halaber, ez lioke erabateko kalterik egingo aipatutako segmentuari; izan ere, ez lieke kalterik egingo etxebizitza partikularretatik edo lantokietatik eginiko kontratazioei, ez eta jendearentzat irekita dauden establezimenduetatik bezeroek edo lokal horietako langileek telefono-deien, posta elektronikoaren edo bat-bateko mezularitzaren eta Interneteko formularioen bidez egiten dituzten kontratazioei ere.

Gainera, egiaztatu zen Radio Taxi Donostik eta Vallinak erabilitako gailuak ez ziren beste alternatiba batzuk

ere bazeudela, baita publikoarentzat irekita dauden establezimenduetatik taxiak erreserbatzeko beste sistema alternatibo batzuk ere.

Bestalde, konprobatu zen askoz ere gehiago zirela inongo motako gailuak ez dituzten establezimenduak, eta, dena den, taxi-erreserbak egiten zirela bertatik.

Azkenik, eragindako merkatu gisa Donostiako establezimendu irekietatik taxiak erreserbatzeko edozein gailuren merkaturatzea identifikatu eta gero (botoi-aginteak, telefonoa, tabletak, ordenagailuak, etab.) eta merkatu horretan salatutako gailuaren kuota minimo txiki-txikia egiaztatuta –Donostian 1.337 ostalaritza-establezimendutatik 35 establezimendu publikotan instalatutako gailu-modelo zehatz baten hornitzailea baita–, ezin izan zen kontsideratu merkatu horretan EGA bere lehiakideekiko, bezeroekiko eta erabiltzaileekiko independentzia-maila nabarmenarekin jarduteko aukera emango zion botere-posizio batean zegoenik.

Horregatik, LEAk 2018ko abenduaren 13ko Ebazpenaren bidez erabaki zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea, ez baitzen akreditatuta geratu LBL hautsi zela demostratzeko zantzu nahikorik zegoenik. LEKen ebazpena irmoa da.

J. Garraio horizontala

2016ko urtarrilaren 14an LEKek akreditatutzat jo zituen LBLren 1.1. artikulua arau-hauste: bata boikot-gomendio edo -erabaki kolektiboa egin izanagatik Bilboko Portuko Garraiolari Autonomoen Elkartearen erantzukizunpeko enpresa bati, eta, bestea Centro de Contratación de Transportes de Vizcaya S. Koop. eta Transportes de Vizcaya S. Koop enpresek erabakitako boikot-praktika bat egiteagatik.

Auzitegi Gorenak –2018ko ekainaren 19ko eta urriaren 10eko eta 19ko epaien bidez– LEA/AVC-k jarritako kasazio-errekurtsoak ebatzi zituen –zehazki, EAEJANren 2017ko apirilaren 5eko eta maiatzaren 19ko eta 17ko epaien aurka jarritakoak, hurrenez hurren. Gauzak horrela, baliogabetu egin zituen errekurtsoaren xede ziren epaiak, eta konfirmatu egin zituen LEKen ebazpenak; izan ere, kontsideratu zuen bai elkartek bai kooperatibek erantzukizun juridikoa zutela bazkideek materialki gauzatutako jokabidearen gainean.

K. Arabako Odontologo eta Estomatologoek Elkargo Ofiziala

2017ko urtarrilaren 17an, Elkargoak errekurtsorik jarri zuen EAEJANren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean LEKek 2016ko azaroaren 15ean emandako ebazpenaren aurka. Ebazpen horretan, besteak beste, LBLren 62.4.c) artikulua arau-hauste astuna egon zela ebatzi zen, zehazki, 2015eko urriaren 27ko itundutako amaiera ebazpeneko bigarren konpromisoan ezarritakoa ez betetzea. Horrenbestez, honako zehapen hauek inposatu zituen:

- Arabako Odontologo eta Estomatologoek Elkargo Ofizialari, 250.000 euroko isuna.
- Carmen Mozas Pérez andreari, 10.000 euroko isuna.

2018ko martxoaren 28an, EAEJANek subsidiarioki hartu zuen aintzat errekurtsua, eta deuseztatu egin zuen partzialki LEKen ebazpena: indarrik gabe utzi zuen errekurtsogile partikularrari ezarritako 10.000 €-ko isuna eta 9.000 €-tan utzi zuen Elkargoari ezarritakoa.

L. Bizkaiko Abokatuen Elkargoa

2017ko maiatzaren 19an, Elkargoak errekurtsorik jarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean LEKek 2017ko martxoaren 20an emandako ebazpenaren aurka.

Ebazpen horretan, besteak beste, LBLren 1.1. artikulua arau-haustea egon zela ebatzi zen, zehazki, sarrera-oztopoak jarri izanagatik ofiziozko eta zaintza egonkorreko txanden bitartez emandako zerbitzuei, eta merkatua lurraldeka konpartimentutan banatu izanagatik bai Bizkaian bai gainontzeko probintzietan, demarkazioen bitartez. Era berean, besteak beste, Elkargoari jarrera arau-haustea eten zezan agindu zitzaion, eta Ofizioko Txandako eta Atxilotuei Laguntzeko Txandako Arautegiko Laugarren Arau Orokorra aldatzeko. Horrez gain, 100.000 €-ko isuna ezarri zitzaion.

2018ko martxoaren 19an, EAEJANK onartu egin zuen Elkargoak jarritako administrazioarekiko auzo-errekurtsua, eta baliogabetu egin zuen LEKen ebazpena.

Estatuko beste auzitegi nagusibatzuetan kontrakoa argudiatzen duten sententzia batzuk daudenez, LEKek Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean aurkeztu zuen kasazio-errekurtsorik, 2018ko irailaren 24an onartu zena.

M. Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Ofizial Prestua

2017ko uztailaren 7an, Elkargoak errekurtsorik jarri zuen LEKen 2017ko ekainaren 27ko Ebazpenaren aurka. Ebazpen horretan akreditatutzat jo zen LBLren 1. artikulua bi arau-hauste egon zirela, honako arrazoi hauengatik:

- estatutuetan espresuki debekatuta dauden eta lehiaren kontrakoak diren eginkizunak edukitzeagatik.
- tarifa minimoak edo orientagarriak onartu, ezarri eta aplikatzeagatik Araban graduatu sozialetako profesionalen zerbitzuetan.

2018ko otsailaren 15ean, EAEJANK ontzat eman zuen Elkargoak jarritako administrazioarekiko auzo-errekurtsua.

LEA/AVC-k kasazio-errekurtsorik aurkeztu zuen AGren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean. 2019ko urtarrilaren 10ean erabaki zen errekurtsorik hori ez onartzea.

3. Espedienteak esleitzea

Eskumenen Koordinazioari buruzko 1/2002 Legeak¹¹ lehen artikuluan xedatutako esleipen-sistemearekin bat etorriz, 2018. urtean auzi bat bidali zitzaion Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari (CNMC), jokabideek EAetik goragoko eremu bati eragiten ziotelakoan. Zehazki, EAEn, Asturiasen eta Kantabrian izandako jokabide bati buruzkoa izan zen.

4. Ikuskaritzak

LEA/AVC-ko IZk, bere eskumenak baliatuz, hormigoia hornitzen duten 5 enpresaren lokalak eta ibilgailuak ikuskatu zituen: Sociedad Financiera y Minera SA (FYM); Hormigones Encartaciones SAU (ENCARTACIONES); Hormigones Euzko SA (EUZKO); Hormigones Askondo SL (ASKONDO); eta Hanson Hispania SA (HANSON).

Ikuskaritzak aldi berean egin ziren bi egunez, eta bukatu ostean funtzionario baimendunak eta ikuskapenaren lekuko izan zen pertsonak sinatutako akta egin zen.

Gainera, Nafarroako Gobernuarekin ere ibili gara lan-kidetzan Foru Erkidegoko eskola-garraiorako lizitazio publikoetan parte hartzen zuten garraio-sektoreko zenbait enpresari egindako ikuskapenetan.

5. Zaintza

IZk zaindu egiten du LEKek espediente zehatzaileei eta itundutako amaieraei buruzko ebazpen eta erabakietan ezarritako betebeharrak betetzen direla.

Zaintza horrek barne hartzen du errekurtsioak jartzen baldin badira egin beharreko jarduketaren jarraipena zaintzea, baita errekurtsio horien ebazpenek berekin dakartzaten ondorioak zaintzea ere. Ebazpena edo erabakia bete behar direnean, IZk betetzen direla zaintzeko beharrezko jarduketa guztiak burutuko ditu. Ildo horretan, betebeharrak horiek betetzen ez badira, dagokion izapideari ematen zaio hasiera zaintza-txosten baten bitartez. Izapide horrek isun ekonomikoa ekar lekiokete betebeharrak bete ez dituen enpresari, zehazki, isuna ezarri aurreko urteko negozio-bolumenaren % 10era artekoa, kalterik egin gabe jar daitezkeen bestelako hertsapen-isunei: 12.000 €/egunera arteko

isunak inposa daitezke ebazpenean agindutakoa betetzera derrigortze aldera. 2018an honako espediente hauek zaindu ditu IZk:

- Egoitzetarako farmazia-zerbitzuak 2
- Bidasoa Behereko ehorztetxeak
- Arabako arkitektoen lan-poltsak
- Gipuzkoako arkitektoen lan-poltsak
- Bizkaiko arkitektoen lan-poltsak
- Arabako Haginlarien Elkargoa
- Garraio horizontala
- Bizkaiko Medikuen Elkargoa
- Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Ofizial Prestua Eskola-jantokiak
- Gipuzkoako bidaiarien garraioa
- Bizkaiko Higiezinaren Jabetzako Agenteen Elkargo Ofiziala
- Arrasateko autoeskolak

¹¹ 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren babesaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzkoa...

V. Instituzio-jarduna sendotzea



1. Lehia-sarea

A. Lehiaren Defentsarako Kontseilua

Urriaren 29an LEA/AVC-ko presidentea Lehiaren Defentsarako Kontseiluaren saiora joan zen. Kontseilu hori LBLen araututako koordinazio-organoa da.

Bertan, arlo horren gaineko eskumenak dituzten Administrazio guztietako ordezkariak biltzen dira, eta haren funtzio nagusia da merkatuetako lehiaren eta LBLren aplikazio koordinatua lortzeko irizpideen eztabaidaren inguruko informaziorik garrantzitsuen zentralizatzea, baita arlo horrekin erlazionatutako gaiak arautzen dituzten xedapenen berri ematea ere.



b. Lehia sustatzeko lantaldeak

Hiru bilera egin dituzte urtean zehar (otsailaren 16an, maiatzaren 23an eta urriaren 29an). Bilera horietako bat erabilera turistikoko etxebizitzetan eta haien erregulazioan zentratutako monografikoa izan zen, eta gidaridun ibilgailuen errentamenduaren gaia ere aipatu zen bertan.

c. IZk koordinatzeko lantaldea

Otsailaren 16an, maiatzaren 23an eta urriaren 29an bildu zen lantaldea. Bertan, CNMC-k eta lehiaren aurkako jokabideak ikuskatzen dituzten arduradun autonomikoek hartzen dute parte.

B. Lantaldeak

a. Kontseiluen lantaldea

2018ko otsailaren 16an, maiatzaren 23an eta urriaren 29an Lehiaren Agintaritzen Sarea (CNMC eta autonomia-erkidegoetako agintaritzak) bildu zen. Bertan LBLren aldetarekin zerikusia duten gaiak jorratu zituzten, zehapenen kalkuluei eta ECN+ Zuzentarauaren harira.

2. Jarduera instituzionala

A. Erakunde-harremanak

Lehiaren arloko estatuko eta Europako (Europar Batzordeko Lehiaren Zuzendaritza Nagusia) beste agintaritza batzuekin aldizkako bilera izateaz gain, beste topaketa eta lankidetzak asko egin dira administrazio eta eragile ekonomiko eta sozial ugarirekin. Besteak beste, aipatzekoak dira Arartekoa –Euskadiko Herriaren Defendatzailea–, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa (KEAO), Foru Aldundiak, Batzar Nagusiak, udalak eta beste organismo publiko batzuk.

B. Konferentziak

a. UPV/EHuko Udako Ikastaroak: Gaurkotasun-gaiak lehia zuzenbidearen inguruan¹²

Agintaritza honek zuzendutako irailaren 14ko jardunaldian, lehiaren defentsaren arloko hainbat gaurkotasun-gai jorratu ziren, besteak beste: Klementzia Programa; ECN+ Zuzentaraua (European Competition Network)¹³ –agintaritzeari gutxienezko zenbait tresna komunak emango eskumena emango diena, baita aplikazioa eraginkorra izango delako bermea ere–; Big Data; eta erabilera turistikoko etxebizitzak. Azken horietarako, LEA/AVC-k inguru geografikoaren arabera araubide bat ezartzea proposatzen du, araubide eraginkorreko printzipioetan oinarrituta egongo dena, baina aldi berean etengabeko berrikuspen-prozesu bat bermatuko duena, etxebizitza mota horien eboluzio azkarrera egokitzea posible izan dadin.



¹² Grabazio osoa honako esteka honetan ikus daiteke: http://www.competencia.euskadi.eus/z02-conten01/es/contenidos/informacion/videos_avc/es_publi_ac/index.shtml



b. Bizkaiko Abokatutzaren II. kongresua

Apirilaren 26an LEA/AVC-ko presidenteak eta Lehiaren Zuzenbidean eta Europar Batasuneko Zuzenbidean espezializatutako Antonio Creus abokatuak hitzaldi hau eman zuten: Lehiaren arloko arau-hausteei eragindako kalteak: antitrust zuzenbidearen aplikazio pribaturako hurbilpen bat.

c. Lehiaren Defentsarako XI Jardunaldi Nazionalak

Maiatzaren 24an eta 25ean LEA/AVC-k Lehiaren Defentsarako XI Jardunaldi Nazionala hartu zuen parte. Bertan, arreta berezia jarri zitzaion araudia eta lehia hobetzeari.

Agintaritzak Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko gida aurkeztu eta banatu zuen, eta, horrez gain, hizlari gisa jardun zuen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen berritasunak lehiaren arloko ikuspuntutik aztertzei mahaian. Bereziki azpimarratu ziren kontratu txikien erregulazioa eta lege berriak ezarritako kontratazio-debekuak.

d. COMPAL III-2018 urteko konferentzia

Alba Urresola presidenteak eta Enara Venturini bokalak hitzaldi bat eman zuten: III. saioa: UNCTAD, COMPAL programaren jasangarritasuna. Kongresua 2018ko ekainaren 7an eta 8an izan zen.

¹³ Zuzentaraua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren, 2018ko abenduaren 11koa. Estatu Kideetako lehiaren arloko agintaritzeari lehiari buruzko arauak aplikatzeko bitarteko eraginkorrak ematera eta barne-merkatuaren funtzionamendu zuzena bermatzera bideratuta dago.



e. Intergovernmental Group of Experts on Competition Law and Policy

Uztailaren 11tik 13ra, agintaritzak Lehiaren arloko Zuzenbide eta Politikako Adituen Gobernu arteko Taldean hartu zuen parte Alba Urresola presidentearen eta Enara Venturini bokalaren ordezkaritza bitartez. Talde hori Nazio Batuen Praktika Komertzial Mugatzaileak Kontrolatzeko Multilateralki Adostutako Printzipio eta Arau Ekitatiboen Multzoan ezarritakoa betez sortutako organo iraunkorra da, printzipio- eta arau-multzo horren aplikazioa eta betetze-maila gainbegiratzeko xedea duena.

f. Lehiaren arloko jarduketa-lehentasunei eta kalteen erreklamazioei buruzko azken berrietasunak aztertze topaketa

2018ko irailaren 27an, presidenteak URÍA & MENÉNDEZ nazioarteko legelarien lantaldeak antolatutako lan-gosarian hartu zuen parte.

Lehenik eta behin, Alba Urresolak LEA/AVC organoa aurkeztu zuen agintaritzaren helburu estrategikoak azalduz eta lehiak motore ekonomiko gisa duen garrantzia azpimarratuz, eta, ondoren, SPKLren aplikazioaren eraginak, *Compliance* programak eta Errukitasun Programa azaldu zituen, betiere bistatik galdu gabe lehia desleialak eragindako kalteengatiko erreklamazioak.

g. Betetzeari buruzko jardunaldia

Urriaren 4an, LEA/AVC-ko presidenteak BFAk eta Iberdrolak antolatutako *compliance*-i buruzko jardunaldian hartu zuen parte.

Zigor Kodearen 2010eko aldaketa eta gero, asko zabaldu da Espainian enpresen eremuko arau-haustek, praktika debekatuak eta jokabide

irregularrak prebenitzera bideratutako betetze-sistemak ezartzeko joera.

Jardunaldi horretan agerian geratu zen lehiaren agintaritzek betetze-programei ematen dieten garrantzia, lehiaren ikuspegia txertatu eta sektore pribatua bere barne-egituretan betetze-kultura ezartzeko egiten ari den esfortzuei bermeak emate aldera.

Zentzu horretan, LBLren arau-haustek enpresa-jardueraren «arriku» gisa identifikatu behar dira, eta lan egin behar da arau-hauste horiek hautemateko eta prebenitzeko protokoloak prestatzeko, baita lehiaren arloko arau-hausteren bat egotekotan, arriskuak minimizatzeko mekanismoak garatzeko ere.



h. Jornada Anual de Competencia: “ECN+ para reforzar las autoridades competencia”

Azaroaren 8an, CNMC-k lehiaren urteko jardunaldia egin zuen: ECN+ lehia agintaritzak sendotzeko. Topaketa hartan Europako ECN+ Zuzentarauaren transposizioak lehia agintaritzentzat dakartzan aukerak aztertu ziren.

Hala, Europako Lehiaren Komisario Margrethe Vestager-ek Zuzentarauaren berrietasunak aurkeztu zituen. Haren xede nagusia da lehia agintaritzak sendotzea, baliabide, eskumen eta zehapen- eta gainbegiratze-mekanismo gehiago emanez.

C. Agerraldiak Eusko Legebiltzarrean

a. Lehiaren Euskal Agintaritzaren Plan Estrategikoa

2018ko otsailaren 9an, LEA/AVC-ko presidentea Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen aurrean agertu zen, berak hala eskatuta, 2018–2020 aldirako Plan Estrategikoa aurkezteko.

Plan Estrategikoa lau helburu estrategiko definitzen ditu: instituzioa sendotzea eta ikusgai jartzea; merkatuen lehia defendatzea; lehiaren sustapena areagotzea (Advocacy) eta bikaintasun operatiboa lortzea.

Plan horrek argi eta garbi finkatzen ditu epe ertaineko helburu eta jarduketak-lerroak, eta erraztu egiten du LEA/AVC-k egindako jardueraren segimendua, ebaluazioa, doikuntza eta zabalkundea. Horrenbestez, kudeaketa estrategikoko tresna bat izango da organismoaren funtzionamendurako eta lan-prozesu eta sistematika eraginkorrak ezartzeko. Agerraldiaren ostean, Eusko Legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeria LEA/AVC-ko ordezkariekin bildu zen.

b. Euskadin kirolari lotutako lanbideak izateko eta horietan jarduteko lege-proiektua

2018ko martxoaren 12an, LEA/AVC-ko presidentea Kultura, Euskara eta Kirol Batzordearen aurrean agertu zen Eusko Legebiltzarrean, euskal alderdi popularraren eskariz kirolari lotutako lanbideak izateko eta horietan jarduteko lege-proiektuari ekarpenak egiteko.

Agerraldi hartan azaldu zen badaudela kirolari lotutako lanbideak izateko baldintzen erregulazioa justifikatzen duten segurtasunari eta osasunari buruzko argumentu eta datu batzuk.

Halaber, lege-proiektua hobetzeko gomendioak ere egin ziren, haren proportzionaltasuna bermatzeko xedeaz.

Zentzu horretan, LEA/AVC-k lanbide horiek izateko eskatzen diren titulazioen zerrenda malgutzea eta zabaltzea proposatu zuen. Horrez gain, trantsiziozko erregimen zehatzago bat erregulatzearen garrantzia ere azpimarratu zuen, gai izango dena lege berria indarrean jartzean eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen esperientzia baloratzeko.



c. Eskola-jantokien zerbitzuari buruzko ikerketa batzordea

2018ko maiatzaren 7an eta ekainaren 29an Ikerketa Zuzendaria eta LEA/AVC-ko presidentea agertu ziren, hurrenez hurren, 2003tik Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa zuzeneko eskola-jantokietako zerbitzuak adjudikazio-prozesua eta hartatik eratorritako erantzukizun politikoak ikertzen dituen legebiltzarreko batzordearen aurrean.

Halaber, eta legebiltzarreko batzorde horren lanak errazte aldera, LEA/AVC-k Eusko Jaurlaritzari igorri zion bere artxiboetan kasu horri buruz duen informazio guztia, hau da, espediente osoen kopia, behar bezala orrialdeztatuta eta erreferentziatuta.



D. Komunikabideak

Prentsan eta irratian gutxienez 336 aldiz agertu dira agintaritza honek egindako jarduketak.

Horrez gain, agintaritza honek 8 prentsa-ohar egin eta banatu ditu.

“Podemos atajar prácticas contrarias a la competencia con diálogo y rigor”

ENTREVISTA ALBA URRESOLA Presidenta de la Autoridad Vasca de la Competencia/ El organismo autónomo abre una nueva etapa en la que prioriza la promoción de la competencia frente a la función sancionadora.

Marieta Vargas. Bilbao

Desde el pasado mes de septiembre Alba Urresola es la presidenta de la Autoridad Vasca de la Competencia (AVC). Su llegada ha coincidido con el quinto aniversario del organismo autónomo, oportunidad que quiere aprovechar para reforzar la labor de promoción de la competencia. Así, una de sus primeras acciones es el lanzamiento de una guía sobre la nueva ley de contratos del



– ¿Puede haber vicios adquiridos en el mercado que van en contra de la libre competencia?

Sí, y se trata de detectarlos e intentar atajarlos, de una manera preventiva. No debemos esperar a que se presente la denuncia o una investigación de oficio y tener que abrir un expediente sancionador, aunque eso siempre va a existir. Queremos ser rigurosos y transparentes en el cumplimiento del procedi-

E. Gardentasuna eta irisgarritasuna

a. LEA/AVCren agenda

2018an honako bilera hauek egin dira:

urtarrilak 17	Bilera Eudeleko ordezkariarekin
urtarrilak 17	Bilera Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendariarekin eta Kultura eta Kirol Saileko Kabinetearen zuzendariarekin
urtarrilak 19	Lan-bilera ASCOMekin
urtarrilak 25	Bilera Europako Parlamentuan.
urtarrilak 26	Topaketa Bruselako Euskadiren delegatuarekin
urtarrilak 26	Bilera Lehiaren ZNko zuzendari nagusi atxikiarekin eta Estatuko Laguntzen Unitatearen buruarekin. Europako Batzordea
otsailak 1	LEA/AVCren batzorde teknikoaren lehiaren arloko zehapenei buruz
otsailak 8	Bilera Arartekoarekin
otsailak 9	Agerraldia Eusko Legebiltzarrean Plan Estrategikoa aurkezteko.
otsailak 14	Koordinazio-bilera Eusko Jaurlaritzaren Politika Finantzario Sailarekin
otsailak 16	Lehiaren Agintaritzen Sarea. Aholkularitza-, sustapen- eta ikerketa-lantaldeak
otsailak 21	Bilera Gasteizko alkatearekin
otsailak 21	IVAPen kontratazio publikoko ikastaroa
otsailak 26	Bilera Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariarekin
otsailak 26	Bilera Donostiako alkatearekin

otsailak 28	Kontzertu Ekonomikoaren urteurren-ekitaldia
martxoak 5	Lan-bilera ASCOMekin
martxoak 12	Agerraldia Eusko Jaurlaritzaren aurrean Kirolari lotutako lanbideak izateari buruzko Legeari buruz hitz egiteko
martxoak 19	BBK Banku Fundazioarekin bilera
martxoak 22	Bilera Araubide Juridikoaren sailburuordearekin eta Eusko Jaurlaritzaren Administrazioako Auzien zuzendariarekin
apirilak 12	Bilera Bilboko alkatearekin eta beste udal-ordezkarri batzuekin
apirilak 23	Bilera Portu Agintaritzaren presidenteararekin
apirilak 26	Hitzaldia Bizkaiko Abokatutzaren II. kongresuan
maiatzak 4	LEA/AVCren batzorde teknikoaren nagusitasunezko posizioaren abusuari buruz
maiatzak 7	Bilera Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko dekanorekin eta beste ordezkari batzuekin
maiatzak 10	Bilera Mercadonako Erakunde Harremanetarako zuzendariarekin
maiatzak 14	Bilera Zeanuriko alkatearekin
maiatzak 16	Bilera Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendariarekin
maiatzak 16	Bilera Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Bizkaiko foru diputatuarekin
maiatzak 23	Lehiaren Agintaritzen Sarea. Aholkularitza-, sustapen- eta ikerketa-lantaldeak
maiatzak 24-25	Lehiaren XI Jardunaldi Nazionalak

V. Institutzio-jarduna sendotzea



Lehiaren Euskal Agintzaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

ekainak 7 eta 8	Parte-hartzea COMPAL II UNCTAD urteko programako IV. Konferentzian	urriak 29	Lehia Defendatzeko Kontseiluaren urteko saioa. CNMC - autonomia-erkidego mailako agintaritzak.
ekainak 12	Bilera CEBEK-eko presidentearekin	urriak 29	Lehiaren Agintaritzen Sarea. Aholkularitza-, sustapen- eta ikerketa-lantaldeak
ekainak 18	Bilera Eusko Jaurlaritzako Aurrekontuen sailburuordetzarekin	azaroak 5	Bilera Bizkaiko Batzar Nagusien presidentearekin
ekainak 26	Gogoetarako espazioei buruzko topaketa Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian.	azaroak 8	Lehiaren urteko jardunaldia. Europako Lehiaren komisarioaren konferentzia
ekainak 27	Enpresa-estrategia ekitaldia. 25 urte positiboki	azaroak 8	Bilera Ekonomia eta Enpresa Ministerioan, Merkatu Unitaterako Kontseiluko Idazkaritzako ordezkariekin
ekainak 29	Enpresa-estrategia ekitaldia. 25 urte positiboki	azaroak 13	Bilera Bizkaidendak-eko ordezkariekin
uztailak 11, 12 eta 13	UNCTADen Lehiaren arloko Zuzenbide eta Politikako Adituen Gobernu arteko Taldearen 17. saioa	azaroak 14	Urte judizialaren irekiera. EAEJAN
uztailak 18	Gipuzkoako Arabako Ahalduen Nagusiarekin	azaroak 19	Bilera Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentearekin
uztailak 26	San Inazio harrera. Bizkaiko Foru Aldundia	azaroak 23	Lan-bilera ASCOMekin
irailak 14	UPV/EHUko udako ikastaroa: Gaurkotasuneko gaiak lehia-zuzenbidearen inguruan	abenduak 11	Bilera ADEGIko presidentearekin eta beste ordezkari batzuekin
irailak 27	Hitzaldia Uria Menéndezek antolatutako lan-gosarian.	abenduak 17	Enpresa-espresionismoari buruzko ekitaldia. El Correo
irailak 27	Women@Competition Iberia programaren inaugurazioa. CNMC	abenduak 19	Berrikuntza Gidaren aurkezpena. Innobasque
urriak 1	Bilera SEAko presidentearekin eta beste ordezkari batzuekin		
urriak 4	Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko gidaren aurkezpena Betetzeari buruzko jardunaldian. Bizkaiko Foru Aldundia/Iberdrola.		
urriak 19	Lan-bilera ASCOMekin		
urriak 19	Bilera UBEReko ordezkariekin		

V. Institutio-jarduna sendotzea

b. www.competencia.euskadi.eus

Webguneak gardentasuna, partaidetza eta lankidetzaz sustatzeko gobernamentu egokirako tresna praktikoa eta eguneratua izan nahi du.

Gizartearekin komunikatzeko kanal horrek, LEA/AVCren jardura guztiei buruzko informazioa emateaz gain, agintaritzari lehia askearen kontrako jardueri buruzko zalantzak, datuak eta salaketak jakinarazteko aukera ere ematen du.

c. [LinkedIn](https://www.linkedin.com/company/lehiaren-euskal-agintaritza)

LEA/AVC-k informazio eguneratua ematen du LinkedIn sare sozialaren bitartez.

2018an 61 post egin dira.

VI. Talde bat kudeatzea



1. Pertsonak

LEA/AVC-k 13 pertsona ditu bere lantaldean, eta honela daude banatuta:

Presidente: Alba Urresola Clavero

Lehiaren Euskal Kontseiluko bokalak:

– Rafael Iturriaga Nieva

– Enara Venturini Alvarez

Ikerketa Zuzendaritza: Joseba Andoni Bikandi Arana

Idazkaritza nagusia: Lourdes Muñoa Corral

Teknikariak (lehiaren arloko arduradunak): 6

Administrazioko langileak: 2

A. Erakundeko kargu-uzteak eta izendapenak

Gobernu Kontseiluak 2018ko uztailaren 17ko saioan onartu zituen Ogasun eta Ekonomia sailburuaren proposamenez Joseba Andoni Bikandi Arana jauna LEA/AVC-ko ikerketa zuzendari eta Rafael Iturriaga Nieva jauna LEA/AVC-ko bokal (aurretiaz ere kargu hori zuena) izendatzeko dekretuak.

Bikandik Ignacio Alday Ruiz jaunaren kargua hartu zuen; izan ere, 2012an hasitako agintaritzaren 6 urteak iraganak ziren.

Rafael Iturriaga Nieva

Zuzenbidean lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean, Enpresa Institutuaren Enpresa Zuzendaritza eta Kudeaketa MBA egin zuen, eta Konplutentse Unibertsitateko Politika Publikoen Analisi eta Ebaluazioko goi-mailako teknikari titulua eskuratu zuen. Lehiaren Euskal Agintaritzako bokal izan da 2012an izendatu zutenetik.

Lehenago Ekonomia Sustapena eta Garapena Saileko diputatu eta Bizkaiko Foru Aldundiko presidenteorde izan zen, eta, beranduago, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Segurtasun Sailaren Gizarte Segurantzako sailburuorde.



D. Rafael Iturriaga Nieva

Enpresa pribatuan (Turbinas y Máquinas Hidráulicas SA) egon eta gero, 1995ean Eusko Legebiltzarrak Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide izendatu zuen. Epaitegiko presidente izan zen 2009ra arte. Momentu hartan aurkeztu zuen bere uko egitea Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko sailburuorde izateko.

Anton Bikandi

Zuzenbidean lizentziatua Deustuko Unibertsitatean eta Europar Batasuneko Zuzenbidean diplomatua Europako Ikasketa Institutuan– 2006tik zen Asociación para la Promoción de la Innovación-Social Innovation Park (SIP) elkartearen zuzendari.

Gainera, 2006 eta 2010 bitartean Lehiaren Defentsarako Euskal Epaimahaiko bokal, idazkari, presidenteorde eta presidente izan zen. Bere ibilbide luzean zehar zenbait erakunderi eman dizkie aholkularitza-zerbitzuak, besteak beste, Europako Parlamentuari.



D. Anton Bikandi

B. Beste aldaketa batzuk

2018an lanpostuak hornitzeko lehiaketa espezifiko bat ebatzi da, eta, bertan, lehiaren hiru arduradun –ordura arte ere beren zerbitzuak ematen zituztenak zerbitzu manualdian– beren plazen jabe bihurtu dira, eta, hala, plantilla finkatu da.

Halaber, arduradun horietako bat beste organismo batean hasi da zerbitzuak ematen, eta aurreikusita dago 2019an beteko dela pertsona horrek utzitako lanpostu hutsa.

Bestalde, plantillaren aldaketa-prozesu bati ekin zaio, etorkizunean beste bi plaza jartzea ahalbidetuko duena: administrazio-laguntzailea eta erdi mailako teknikaria.

2. Diru-baliabideak

Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 5/2017 Legearen bitartez, LEA/AVCri 1.329.000 €-ko aurrekontua eman zitzaion ekitaldi horretarako.

Aurrekontu horren ikusizko irudikapena modu honetara adieraz daiteke, aurrekontua, betebeharrak onartuak eta ordainketak alderatuz¹⁴.

AZALPENA	Aurreikusitako	Obligazio onartuak		Ordainketak	
	€	€	% AURREKONTUA	€	% AURREKONTUA
Langile-gastuak	987.448	957.537	96%	957.367	97%
Funtzionamendu-gastuak	341.552	291.098	85%	217.478	64%
Gastu arruntetarako transf. eta dirulaguntzak	0	0	0	0	0
GUZTIRA	1.329.000	1.248.636		1.174.845	88%

3. Baliabide materialak

Baliabide materialei dagokienez, 2018an aurrerapauso handia eman da kudeaketan EJren enpresa-informatikoak (EJIE) garatutako informatika-aplikazio bati esker. Aplikazio horren bitartez, posible izan da defentsa-, sustapen-, aurkaratze- eta kontsulta-espedienteak kudeatzea. Tresna berri horrek gaien izapidetzean kontrola areagotzea eta haren kalitatea hobetzea ahalbidetuko du, baita horiek guztiak gehiago sistematizatzea ere.

Era berean, aplikazioa biltegi zaie espediente bakoitzean aztertutako dokumentu digital guztiei; hala, etorkizun oso hurbilean posible izango da agintaritzaren jardura guztia euskarri digitalean egitea.

Jada martxan dagoen aplikazio hori etengabeko hobekuntza-prozesuan dago, eta, beraz, beren eguneroko lanerako erabiltzen duten LEA/AVC-ko teknikariek egindako hobekuntza-proposamenak txertatzen zaizkio etengabe.

4. Konpromisoa genero-berdintasunarekin

LEA/AVC-k honako helburu hauek ditu, besteak beste: «Komunikazioan berdintasuna sustatzea», «langileei berdintasun arloko prestakuntza ematea» eta «berdintasunerako plangintza eta ebaluaketa hobetzea». Helburu horietatik eratorritako jarduketaren xedea da EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VIII. Planaren ezarpenari ekarpenak egitea 2018-2021 aldian¹⁵.

Halaber, irailaren 27an agintaritzak Espainian eta Portugalen lehiaren arloko zuzenbidean lan egiten duten emakumei ikusgaitasun handiagoa ematea xede duen W@competition Iberia plataformaren aurkezpenean hartu zuen parte: www.womenat.com.

Topaketa hartan beste gaurkotasun-gai asko jorratu ziren lehiaren ikuspuntutik, besteak beste: big data, kartelen kontrako borroka, compliance-a eta araudia banakoen mailan aplikatzea.

¹⁴ Aurrekontuaren xehetasunak partidaka ikusteko, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunea kontsulta daiteke. Atala: Lehiaren Euskal Agintaritzako aurrekontuaren betearaztea <http://www.euskadi.eus/informacion/ejecucion-del-presupuesto-de-la-autoridad-vasca-de-la-competencia-2018/web01-a3o-gaoce/es/>

¹⁵ http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde7plana/es_def/adjuntos/vii_plan.pdf

AAEE	Autonomia-erkidegoak
AG	Auzitegi Gorena
AGA	Araba Garapen Agentzia SA.
AAPP	Administrazio Publikoak
AIBAK	Comercial Aibak Trs, S.L.
API	Agente de la Propiedad Inmobiliaria
AUZO LAGUN	Auzo Lagun S. KOOP.
BAEO	Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua
BEB	Berregokipenerako Egitamu Berezia
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
BHI	Bigarren Hezkuntzako Institutua
BUE	Bilboko Udal Etxebizitzak
CNMC	Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAEJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia
EAL	Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legea
EBFT	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna
ECN+	Zuzentaraua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 11koa. Estatu Kideetako lehiaren arloko agintaritzei lehiari buruzko arauak aplikatzeko bitarteko eraginkorrakoak ematera eta barne-merkatuaren funtzionamendu zuzena bermatzera bideratuta dago.
EGA	Equipamientos GPS Auriga, S.L.
EHAEO	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
EIT	Eraikinen Ikuskapen Teknikoa
EJ	Eusko Jaurlaritza
ETE	Erabilera Turistikorako Etxebizitzak
EUDEL	Euskadiko Udalen Elkartea
GTI	Gidaridun Ibilgailuen Errentamendua
HAP0	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

HJA	Higiezinen Jabetzako Agentea
HLBHIP	Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua
ILEak	Ingurumenaren alorreko lankidetzak-erakundeak
IZ	Ikerketa Zuzendaritza
KEAO	Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa
LBL	Lehiaren Babesari buruzko Legea
LEA/AVC	Lehiaren Euskal Agintaritza
LEK	Lehiaren Euskal Kontseilua
LHBLTB	Lurzoruaren eta Hiri-birgaitzearen Legearen Testu Bategina
LKL	1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren babesaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzkoa
MAGUI	Cocina Central Magui S.KOOP.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.
UPV/EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea



Lehiaren Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia